

IÑIGO MITXELENA ▶ Apaiz gazte baten burutazioak



KOMIKIAREN HIRU GERLARI

JOSU GOENAGA, JON BERDEJO ETA IGOR ELORZA KOMIKIZALE AMORRATUAK DIRA



miriam ocariz no.11.ta rare divinas palabras e-play
amaia arsuaga levis red vialis munich puma

ODONTOLOGI OROKORRA

- > Bideo bidezko diagnostikoa
- > Erradiografia digitala
- > Hagin-ateratzeak (azkenaginak...)
- > Endodontzia
- > Peridontzia
- > Garbiketa
- > Aho erreabilitazioa



HORTZ KLINIKA

Antonio Rafaniello

389 Koleg.

Enparan 8 - 1 Tel.: 943 81 67 36

ODONTOLOGI ESTETIKOA

- > INPLANTEAK
- > Koroak
- > Ahoko zubiak
- > Karilak
- > Hortz zuriketa
- > Protesi finkoak eta mugikorak
- > Odontologi tratamendu integralak

zerbitzu berria: **ERALDAKETA ETA KONPONKETAK**


kreamilera apurtu zaizula,
soinekoa tarratu zaizula,
argaldu zarela...

UTZI EZAZU pressto-ko PROFESIONALEN ESKU

Ojalak, kreamilerak, barrenak, forroak, e.a.
Larruzko arropen konponketa

kalitatezko **ERALDAKETA** eta **KONPONKETAK**
larruzko jantzien **GARBIKETA** eta **KONPONKETA**

pressto
Kalitatezko Tindategi
Azkarak
www.pressto.com



Jose Artetxe, 9 AZPEITIKO

943 81 63

Guardia kalea, 3 AZKOITIA

943 85 16

San Francisco, 32 ELGOIBAR

943 74 35

Hiruko txikian ▶ Iban Arregi

Utzi bakean gaztea

1 Karnabal haietan Jose Mari Bastidaren eta herriko hainbat gazteren artean gertatuta-ko borroka zeinek hasi zuen alde batera utzita, gaia bera urrunegi joan zaie batzuei. Komunikabideek Bastida-eta erabili egin zituzten beharbada, edo igual alderantziz izan zen, baina kontua da orduan proetarra, enkaputxatu, kale borroka eta halakoak erabili zituztela betiko egunkariei, Egañaneko lekukoen lekuz kanpoko adierazpenak jasoz. Eta horrek, gaur egun, badakigu zer esan nahi duen: kartzela.

2 Ibarretxe Planak hitzetik hortzera darabilzki elkarbizitza, elkarriketa, demokrazia, gizartearen borondatea eta halako kontzeptuak. Hain justu, arazo bat konpontzen ez denean, usteltzen uzten denean, tentsioa eta biolentzia ager daitezke gutxien espero denean. Eta gatzetxearen arazoak konpontzeke segitzen du Azpeitian. Gai horretan (ere) izango al da elkarbizitza eskuratzeko elkarriketarik, demokrazia eta gizarte(gaztea)ren borondatea kontuan hartuko duenik?

3 Gazteei konfiantza tarte bat utzi beharko lieke Udalak, eta lokala laga. Eta utzi. Utzi biltzen eta antolatzen. Utzi eztabaidatzen, sortzen, burua nekatzen, aspertzen, dibertitzen. Utzi gogoeta egiten. Gazteak ez du behar etxetik atera orduko gainean izango duen gizarte-laguntzailerik. Gazteak espazioa behar du; eta konfiantza, sikiera konfiantza tarte bat. Hori agintzen dutenentzat arriskutsua izan daitekeela? Beharbada bai. Baina arriskuak ere hartu behar ditu agintzen duenak.

uztarria ▶

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinadora

Egoitza. Julian Elorza Hiribidea 4 behea, eskubia (Azpeitia, 20730)

Telefono eta fax zenbakia. 943 15 03 58

Posta elektronikoa. uztarrria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 50.a (2004ko apirila)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Azaleko lana. Uztarrria

Web orria. www.uztarria.com

Diseinua. hitzeko
Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarria@uztarria.com

Bazkidetza. 943 15 03 58

Harpidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.400 ale

Inprimategia. Gertu

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukina

Bai Euskarari Zientzia
bai
Guk zerbiztua eta
lana euskaraz

[u-iritzia]

08 Inkesta. Jendeari ez zaio ondo iruditzen Erdi kaletik Eliz kalera zegoen pasabidea bota izana, lotura gunea zelako.

10 Gogoetari leiho. Azpeitia 2002. Miren Larrea, Mari Jose Aranguren eta Xabier Aranbarri sozioekonomiaz.

[u-mamia]

12 Madrilén. Jon Esnaola, Begoña Beobide, Maite Etxaniz eta Asier Agiriano hiri lehertuaren lekuko.

16 Klik! Maratoi erdiaren beste alde, Xabier Iturralderekin.

26 Iñigo Mitxelena. Apaiz gaztearekin elkarriketa.



[u-jakiteko]

28 Beste alkatea. Nork ezagutzen du Coumet? Hazparneko auzapeza da. Gero eta botere txikiagoa du.

[u-euskara]

40 Hitzarmena. Herriak behar eta merezi zuen Udala-Uztarrria akordioa, eta hitzarmena eredu izan daiteke beste kontu batzuetarako.

UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶
(erakunde publikoak)



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Enbido ▶



Pako Aristi

Azpeitiko artista berriak

1 877. urtean, Antonin Dvorak konpositore txekiarrak Estabat Mater konposatu zuen. Hori baino lehenago bi alaba eta semea hil zitzaizkion hari, alaba bat bi egun zeuzkala eta semea tifusa zela medio. Entzun egin behar da Estabat Mater hori samina zer den ulertzeko, sentimenduen indar menderaezinak eragiten duen ezinegona ulertzeko, baina baita tragediatik artelan bat nola sor daitekeen ikasteko ere.

Sormena lantzen duen jendeari artista deitzen zaio, eta era askotakoak dira: margolariak, antzezleak, eskultoreak, idazleak, argazkilariak, bertsolariak... Artelanak berezitasun ugari ditu lan arruntekin alderatuz: lan arrunta mekanikoa izan ohi da, errepikatuz ikasi egiten dena; lan artistikoa beti da berria, eta urte asko hori egiten eman izanak ez ditu ziurtatzen hurrengoan ondo egingo duzunik. Beti hutsetik hasten da lan artistikoa; inork eskatu gabeko lan boluntarioa da; eta denbora askotxo igaro arte ez dakizu zenbat diru emango duen, hori dirurik ematen badu, lan arruntetan egin aurretik dakizularik zure soldataren kopurua.

Daukan bizitzarekin konforme ez dagoenaren emaitza da beti lan artistikoa; esan nahi dut bihotzak iraultzen dituen lan artistikoa, gizartea markatzen duena, jendea hondoraino hunkitzen duena, eta ez denbora-pasako edergarria dena. Kontxu Odriozola antzezle azpeitiar aski ezagunak hala esplikatzen zuen bere antzerkirako grina: gaztaroan Azpeitian begien aurrean ikusten zuen bizitza pobrea iruditzen zitzaion, tristea, estua, grisa, zatarra, ito egiten zen, eta antzerkia eginez, nazioarteko obrak antzeztuz eta pertsonaia ezberdinak eta korapilotsuak antzeztuz bere bizitzari beste aliziente bat ekarri nahi izan zion.

Baina artista ez da egoista izaten. Bere lana nahi duen guztiari erakusten dio, eta horrela sarritan gertatzen da paradoxa aberasgarri hau: artistak

asko sufritu ondoren sortu duen obra (literarioa, zinematografikoa, piktorkoa) gozamen eta betetasun eragile gertatzen zaio ikusleari. Artistak sufrimendua bere baitan gozatzen badaki, ikusleari sufrimenduaren emaitzarik onena bakarrik erakutsiz, ez sufrimendua bera. Patthi Smith rockera aspal-dikoak hala esan zuen: "Erakuts ezazu zure obra, ez zure zauriak".

Enkarguzkoak edo dirua ematekoak ez diren lanetan buru-belarri hasten denak ez dauka beste helbururik: bere minak sendatu eta bizitza edertzea; eta ondoren, jendeak bere eginahala estimatzea ere bilatzen du. Ez dut esan nahi artistak zorigaitzokoa izan behar duenik, baina bai zorigaitza eragiten duten arazo askori nolabaiteko erantzun bat eman behar diela, zorigaitzak diren eratakoak direla. Jendeari nolabait 'balio' egin behar dio ikusi duen horrek, irakurri duen horrek.

Zoriontsu bizi den jendeak ez du inoiz ere ezer interesgarrikerik egiten, batez ere haien zoriontasuna ez delako benetakoa izaten, gizarteak ezarri dituen arauen eta lorpenen betetze soil bat baizik.

▶ **'LITERATUZTA'.** Azpeitian artista talde berri bat ari da kaleratzen. Literaturtza deitzen da haien agertokia, eta idazleak dira, poetak, ipuinlariak, pentsalariak, zerbait aportatu nahi diotenak gure bizitza gris honi. Egia esan, gazteok, iazko uztailean, zuen lehendabiziko emaitzak epel utzi ninduen, eta epel esatea literaturan hotz esatea da, munduan hainbeste irakurtzeko eta hain denbora gutxi dagoenean.

Autokonplazentziatik ihesi behar du artistak, ño-ñokeria baztertu, edergarri hutsalak ere bai, nabeen sindromea atzean utzi behar du, eta maitasun faltaz ahal bada ez hitz egin: horteroa geratzen da bihotzaren programen inperioan bizi garelarik. Egun aspergarrien ihesbide hutsa den literaturarik ez du maite benetako irakurleak, bizitzaren benetako arazoei aurre egiten dien literatura baizik.

Talde handia elkartu zarete. Espero dut poz handiagoak emango dizkiguzuela hemendik aurrera.

HILEKO GALDERA ▶

'Urola-Kostako Hitza' gustatu al zaio jendeari?

DESS

design

dekorazioa eta atsedena bat eginda

ALTZARIAK SOFAK DEKORAZIOA SILOIAK ATSEDENA ALFONBRAK
MAHAIK SOMIERRAK KOLTXOIAK GREMIOEN KOORDINAKETA
OSAGIAK SUKALDEAK HORMA ARMAIRUAK DISEINUA
ALTZARIAK SOFAK DEKORAZIOA SILOIAK ATSEDENA ALFONBRAK
MAHAIK SOMIERRAK KOLTXOIAK GREMIOEN KOORDINAKETA
OSAGIAK SUKALDEAK HORMA ARMAIRUAK DISEINUA
ALTZARIAK SOFAK DEKORAZIOA SILOIAK ATSEDENA ALFONBRAK
MAHAIK SOMIERRAK KOLTXOIAK GREMIOEN KOORDINAKETA
OSAGIAK SUKALDEAK HORMA ARMAIRUAK DISEINUA



Alaitz Olaizola

Londres, Azpeitia, Donostia

Azkeneko bidaiatik itzultzean, ingelesa ikasten hasi behar nuela argi eta garbi neukan. Jendearekin, atzerrian, ezin komunikatu hori gogorra egin zitzaidan. Ezin asetu kuriositatea, ezin eskatu nahi nuena, ezin ulertu ziotena. Baina, behin etxean, ingelesa jakiteko inongo premiarik sentitu ez eta laster ahaztu nuen azken bidaiaren ostean sentituta-ko premia hura.

Londrestik etorri berriak gara, eta arazoak bi dira konturatu naiz. Batetik, ingelesa, eta bestetik, ausardia. Gutxi edo gaizki jakinagatik ere, saiatur gero, zerbait esateko moduan izango nintzateke, baina ez, ausardia falta!

Iritsi bezain pronto konturatu nintzen, han pasatu beharreko egunak, hizkuntzari zegokionez, ez zirela batere samurrak izango. Maletak eskuetan, metroan sartu eta leihatilako gizonarekin izandako elkarriketa hura etortzen zait gogora. Elkarriketa, edo jarduna. Ondo apuntatuta eraman nuen han esan beharreko guztia, zer erosi nahi nuen azaldu nion intonazio txar baina ondo konposatutako esaldi bakarrean. Bakarrean diot, handik aurrerakoa inprobisazio puruan oinarritu zelako. Metroko txartelak atera nahi nituen. Joaterako, eskaintzen zituzten aukera guztiak ondo aztertu nituen eta ederki prestatua neraman esan beharrekoa; ez ordea, berak erantzungo zidana. Laster, eskatzen niona baino aukera merkeagoa banuela esan zidan, edo hala ulertu nion nik behintzat, eta gure atzean sekulako jende ilara sortu eta gero, hamar minuturen bueltan lortu nuen txartel madarikatuak lortzea. Hegazkinean bidaiatzeko hartutako lasai-garriaren eragina aise pasatu zitzaidan trantze hartan. "Sarrera ederra egin dun", esaten nion behin eta berriz neure buruari.

Sarrera, korapiloa eta amaiera. Izan ere, handik aurrerakoa ez zen errazagoa izan.

Txinoan bazkalduko genuela erabaki genuen haietako egun batean eta Txinatown famatuan sartu ginen. Buffet-a zenez gero, janariarekin ez zegoen arazorik; botila bat ur eskatu nahi ordea, eta ezin! Gezurra dirudi, hainbeste bai baitakit.

Baina, eskuak, ingelesa eta gaztelania erabiliz sekulako ahalegina egin eta gero, hala esan ez zidan ba txinatar gazteak haserre, mesedez ingelesez hitz egiteko! Hura ulertu izan ez banio, askoz hobe. Han jandako arroza oraindik bueltaka bai darabilkit urdailean. Eta nik: "I'm sorry, I don't speak english". Berak ni ezin ulertu eta nik ere bera ez, eta beste bati deitu zion. Gauza bat zeukan hobe beste honek: sinpatikoagoa zela. Eta teknika berarekin, ura eskatzea lortu nuen.

Ausardia berreskuratu beharrean, neukan apurra galtzen hasia nengoen.

Jostailu denda erraldoi horietako batean sartu ginen arratsalde batean, eta lasai nenbilen bazterrak ikusiz, mutiko gazte bat eskuan zeukan kristalezko irudi eder batekin hurbildu eta zerbait esan zidan arte. Ulertzeko ahalegina egiteko asmo guztiak galduak nituen jadanik, eta nik berriro ere: "I don't speak english". Eta berak haserre: "Joe, pero yo ya sé español".

▶ **APLIKATU EUSKARARI.** Distantziarekin begiratu gero, neuri ere sekulako grazia egiten didate han pasatutako estuasunek, baina ez diot gezurrik, une haietan neure buruarekin benetan haserretzen nintzela esaten badut. Egunk pasatu ahala, ingelesa ez jakiteak sortzen zizkidan une barragarriei aurre egiteko moduan izango nintzela sinestarazi nion neure buruari. Nirea ez zela errua, nekienarekin ez nintzela moldatzen, gehiago ikasi beharra neukala, eta ikasiko nuela. Baina ausardia falta hori... Hori bai egiten zitzaidala jasangaitza, hori bai ez niola barkatzen neure buruari.

Gero, autobus geltoki batean behin ausartuko "seven" esaten emakume bati, ea hartu beharreko autobus zenbakia hura zen galdetuz. Berak, gaztelania ederrean: "Sí, el siete os lleva al museo".

Datorren bidaiari, ausardiaren eskuliburua soinean hartuta ibiliko naiz, non, orriz orri esango duen lotsa etxean utzita joan behar dela kalera.

Gero, aplikatu bera gure euskarari. Azpeitiarra Donostiara erosketak egitera joan eta "¿tienes la talla 42?" eta dendariak: "Bai. Zer koloretan?".

Ederki pasatu genuen Londresen. Berriro itzuliko naiz, seguru. Bitartean, euskararen babesean lasai ibiliko naiz, beti ere hizkuntza desberdinekiko harremana estutzeko garaia iritsi ote zaidan nire buruari galdetuz.



ZURE BEREZKO DOTOREZIA JANZTEN DUGU

LURRINAK - BITXIAK - MAKILLAJEAK - OSAGARRIAK

gotain



LURRINDEGIA

ERDIKALEA 3, AZPEITIA
TEL. 943 814 358

**BILATZEN DUZUNA BILATZEN DUZULA,
BETI GAUZA BERA AURKITUKO DUZU**

Era
zerbitz
dituzu
tres
go
eskule
etxera



duzun guztia... **etxeberrian** den-dena
aurkituko duzu. Baita gure profesionalen
arreta eta laguntza osoa ere.



**eTxe
Be
RRia**
Brikolajea & Etxea

GARMENDIPE KALEA, 1 (futbol-zelaiaren aurrean) • 20730 AZPEITIA

BADUZU NON AUKERATU

Trauskil ▶ Jon Berdejo



Galdetuz ▶

**Zer iruditzen
Eliz kalerako
pasabidea bota
izana?**

MILAGROS RABADELLA ▶
azpeitiarra



“Eliz kalean jaiotakoa naiz eta txiki-txikitatik horko pasabidea ezagutu dut. Pasabiderik ez badute egiten, neu joango naiz kexatzera udaletxera; bilatuko dut jendea nirekin etortzeko”.

KONTXI ETXEBERRIA ▶
azpeitiarra



“Oso gaizki. Ni Eliz kaletik Erdi kalera askotan pasatu izan naiz pasabidetik, eta beharra dago.

Horrela, Eliz kalea bakartuta gelditzen da. Txikiteoan ibiltzen direnak gutxiago etortzen dira”.

M. JESUS ZUBIZARRETA ▶
azpeitiarra



“Berriro egin dezaten nahi dut. Nik lehen ere egin nuen sinadura bilketa, baina ez

dakit balio ote duen. Orain nik dendako bi ateak irekitzen ditut jendea pasa dadin”.

LOLI MUJIKA ▶
azpeitiarra



“Oso gaizki iruditzen zait. Kale batetik bestera pasatzeko ezagutu dugun pasabidea

mantendu behar da. Bestela, pasatzea zail egiten da”.

Hau ▶

Azken gertakariak

M-11ko goiz hartan hasi zen guztia. Madriletik, eta baita Euskal Herriko zenbait alderdi eta sektoretatik ere ezkutatu nahi izan ziguten arren, talde islamiar batek bere gain hartu zuen atentatua berehala. Krudela benetan! Harriak ere negar egiteko modukoa. Harriak eta herriak. Ez dut zibilen aurkako ekintza hori justifikatuko, baina ez dut dudarik hilketa horien erruduna Espainiako Gobernu dela.

Espainiako hauteskundeak bertan genituela, urduri sumatu genuen PP, berak ere sinetsi ezin zuen gezurra herriari saldu nahian (ETA izan zela), baina prezio garestia zuen gezurrak, inoiz baino hildako eta zauritu gehiago! Ibarretxek ere bere nagusien (Acebes, Aznar...) haritik ekin zion bere diskurtsoari, gero aldatu behar izan bazuen ere, eta arratsaldeko zortziretan gure herriko udaletxe aurrean kontzentratzera deitu gintuen. Oso ondo, baina ez nintzen joan, berez azaltzeko inongo arazorik ez izan arren, hamabi ordu lehenago horrelako kontu serio baten aurrean gezurretan aritu zaigun jendearen ondoan kontzentratzeak nazka ematen baitzidan, botalarria. Hala ere, zorionak azaldu zinateno!

Baina badut zalantza bat; Iruñean bere dendan tiroz erail zuten Angelen heriotzak ez al du salatzerik merezi? Eta Hernanin zipaioek erail zuten Kontxirenak? Bere dendan ETArek aurkako kartel bat ez jartzeagatik garbitu eta hori salatzeri manifara joan den andre-gizonak ez al gaitu hunkitzen? Zergatik, ezker abertzalekoak direlako? Non dago EAJ, zipaioak manifetara bidali orde, bera gurekin etortzeko horrelako hilketa zentzugabea gaitzestera? Orain PP boteretik bota dugulako, dena konponduko dela dirudien une hauetan, ez gaitzen fida, Joxi eta Joxean eta beste hainbat euskaldun erail zituzten beraiekin. Euskal Herria, hemen egingo dugu, ez Madrilen! Angel, Kontxi, gogoan zaituztegu!

Jokin Uranga

Apunteak ▶

GORA.

Azpeitiko Udalak eta Uztarriak herrian euskara normalizatzeko planerako akordioa lortu dute. Beharrezkoa zen. Ea beste arloetarako ere balio duen.

GORA.

Berriz ere oso txukun joan da aurten Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia. Herrian antolatua, herritarrek antolatua. Garai bateko maratoi erdi hura bezala.

BEHERA.

Kontraesana izan daiteke Espainiako hauteskundeetan EHNArekin bozkatzea, baina ez du esan nahi horrekin ezin denik bozkatu, gertatu den bezala.



Herriko gazteak, Donostian, epaitegi aurrean, lehengo astean. N. URANGA

GALDERA.

Orain bi urte, Elegante Eguneko liskarrak zirela eta, agintari batzuek gogor jardun zuten gazteen kontra. Orain, epaiketa garaian, zergatik isildu dira?

Uztarria.com ▶

Inkesta.

Hauteskundeetako emaitzak onak izan direla uste al duzu?

- ▶ Bai. %45.
- ▶ Ez. %42.
- ▶ Lehengo berdina. %13.

Orain dagoena.

▶ Inkesta. Erakusketetara joateko ohiturarik ba al duzu?
▶ Eztabaida. Azkenaldian Azpeitian emakumeek erasoak jasan dituzte. Zer egin daiteke?

Zer dio? ▶ Azpeitiko Emakume Taldea

Kalean aske bizitzeko eskubidea

Azpeitian emakumeek azken hilabeteetan jasaten ari garen erasoen ondorioz gure segurtasunaz arduratuta gaude.

Zenbaitek etxerainoko jarraipenak, mehatxuak, akosoak... jasan dituzte, eta hori jasan behar izan duten zenbait adin txikikoak izan dira, gainera.

Denbora pasatu ahala, gero eta emakume gehiago dira erasotutako Azpeitiko kale eta tabernetan.

Gure eskubideak bermatu asmoz, erasoen aurrean Udalarri beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskatzen diogu. Bitartean herritarrok indarrak batu behar ditugu kaleetako giro lasaia berreskuratzeko. Ez gaude prest inon beldurrez ibiltzeko!

Erasoa saihesteko hartu beharreko neurriak:

- ▶ Bakarrik bazoaz, toki ilunak saihestu.
- ▶ 'Dedo'-n matrikula eta kotxea gogoan hartu.
- ▶ Mugikorra baduzu eta jarraitua zarela sentitzen

baduzu, bertatik hitz egiten ari bazina bezala egin edo norbaiti deitu.

▶ Arriskuan bazaude, parean duzun edozeinengana gerturatu lotsarik gabe. Eskatu laguntza.

▶ Taberna edo guneko publiko batean egoera eze-roso edo erasokorra baduzu, esan zerbitzariari eta.

Erasotutua bazara:

- ▶ Ez garbitu, frogak gal daitezke.
- ▶ Deitu Ertzaintzari (943 85 10 00, Azkoitia).
- ▶ Joan ospitale batera; leku horietan laguntza mediko eta psikologikoa eman beharko lizuke.
- ▶ Jarri salaketa. Oso garrantzitsua da, jasandakoa ikusezintasunean gelditu ez dadin.
- ▶ Jo herriko emakume taldeetara.
- ▶ Inoiz ez bota errua zeure buruari!
- ▶ Erasok baldin badaude, hauek ez daitezela erantzunik gabe gelditu.

Gazteez eta lorepotoez

Larunbat gau batean, Azpeitian. Taberna baten aurrean, gazte koa-drila batek lorontzi bateko lore guztiak errotoz atera ditu eta elkarri botaz aritu dira. Aspertuak zeudelako, edo loreak gustatzen ez zitzaizkielako... baina dena txikituta. Gertaeraren lekuko izan ginenok ez genien ezer esan, baina aipamen bat entzun zen: "Etorkizun tristie zeukenu gazte jende honekin...". Iragarpen beltza, dudarik gabe.

Ez naiz lorepoto horietan 'lerrokatutako' naturaren zale berezia, eta ez deritzot inor iraintzeko moduko larritasunik duenik gertaerak, baina zerbait esan ez izanaren damuaz, lore haiek eta lerro hauek aprobetxatuko ditut horretarako. Loreak diot, gaur loreak izan direlako, baina beste behin kolunpioak izan zirelako (Goena eta Harzubia auzokoak), eta hurrengoan edozer izan daitekeelako. Fenomeno hori ez da gaurkoa, ezta geurea soilik ere. Arrunta da herrialde garatueta, gazteek inkonszienteki, bizi diren gizartearekiko desadostasuna eta deskontentua horrela agertzea, eta udaletxeen aurrekontuetan puskaketa horiek aurreikustea ohikoa izate punturaino. Baina horrek ez du ondo dagoenik esan nahi. Gertaeraz egin zen eta egin ohi den hausnarketa ere ez zitzaidan gustatu, ordea, ezkorra eta exajeratua nire gusturako.

Bi gauza esateko, beraz: lehendabizikoei, axola ez bazaie pixka bat pentsatu eta besteek balora ditzaketen gauzak bakean uzteko eskatuko nieke. Bigarren goei, ez orokortzeko eta ez dramatizatzeko. Gaur ekarri dudana gertaera eta hortik atera zen den ondorioa ez dira nobedosoak, bestela ikusi harira datorren zita: "Nuestra juventud es decadente e indisciplinada. Los hijos no escuchan ya los consejos de los mayores. El fin de los tiempos está próximo". Kontuan izan hori Mesopotamian idatzi zela, orain dela bi mila bat urte. Hemen gaude oraindik, behintzat!

◀ Eta beste



Ainhua Odriozola

AZPEITIA 2020

► Sozioekonomia

Nolakoa izan beharko luke Azpeitiak 2020an hirigintza, sozioekonomia, komunikabide... arloetan? Egin behar al da gogoeta ariketa hori? Uztarriak hurrengo hilabeteetan hausnarketa hori bultzatu nahi du atal honetan. Sozioekonomia gaia da lehenena.

Urola Erdia, ekonomia ikuspegia

Miren Larrea eta Mari Jose Aranguren ► Larrea, Iraurgi Lantzenen Ezagutza Guneko teknikaria eta Deustuako Unibertsitatean irakaslea da. Aranguren, ESTE-Deustuako Unibertsitatean Ekonomia irakaslea. Biak, Enpresa eta Ekonomia Zientzietan lizentziatu eta Ekonomian doktoratuak

Urola Erdiaren moduko eremu batean ekonomiari buruz hausnarketa egiterako bada erantzun beharreko galdera bat: ba al du zentzurik tokiko mailan, Urola Erdian adibidez, azterketa ekonomikoa egiteak?

Globalizazioa ulertzeko moduetako baten arabera, gaur egun benetan esanguratsuak diren harremanak nazioartean garatzen dira eta Urola Erdia bezalako eremu baten azterketa ekonomikoa ez dauka zentzurik errealtateaz ezagutzeko. Bada, ordea, beste ikuspegi bat ere, globalizazioak berak tokikoaren garrantzia areagotu duela esaten duena. Ikuspegi hori lantzen dutenek zera diote: globalizazioak tokiko ekonomien arteko lehia areagotu duela eta tokiko mailan enpresek duten giroak eragin handia izan dezakeela enpresa hauek nazioartean izango duten lehia gaitasunean. Ikuspegi horretatik, beraz, izango luke zentzurik 2020ra begira eskualde mailako hausnarketa bultzatzeak eta horixe da orain oinarritzat hartuko duguna.

Ikuspuntu horretatik, tokiko ekonomiaren ardatz nagusiak gizarte sistema (bertan bizi eta lan egiten dugun pertsonak eta taldeetan antolatzeak dugun gaitasuna) eta ekoizpen sistema (enpresak eta beraien arteko harremanak) dira. Ekonomiaren etorkizuna bi sistema horien arteko harremanak garatzeko moduan oinarrituko da. Hori dela eta, ondoren bai enpresei eta biztanlegoari buruz ariko gara.

Saia gaitzen bi sistema horiei dagokienez 2020ra begira ditugun erronkak aztertzen. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzaturik, Gipuzkoa 2020 izenburupean hausnarketa estrategikoko prozesu bat burutu zen. Bertan 2020an Gipuzkoa zer izan daiteken ikusten laguntzeko, lau eszenatoki —hau da, lau Gipuzkoa— posible deskribatu zituzten. Okerrenetik hoberenera honela sailkatu zituzten eszenatokiak:

► Gipuzkoa kuzkurtua. Eszenatoki honetan, Donostialdea kontrolik gabe garatzen da eta barnealdeko eskualdeek pisua galtzen dute.

► Gipuzkoa desgogara. Gipuzkoa metropoli handi bihurtzen ari da eta biztanleria Zarautzik Hondarra-

birainoko itsasaldean pilatzen da, eta Donostia horren erdigunea da.

► Gipuzkoa paradoxikoa. Eszenatoki honetan Donostialdeaz gain bada beste polo garrantzitsu bat: Debagoiena. Baina beste eskualde batzuk —Goierri, Urola eta Debabarrena, esaterako— atzerantz doaz, bai demografiari eta bai ekonomiari dagokionez.

► Gipuzkoa berritzailea. Lurraldearen erdigune baktzat, Donostialdea zuen ereduaren alternatibagisa, unitate hauek aipatzen dira: Beasain-Lazkao-Ordizia, Goierri Hiria; Azpeitia-Azkoitia, Urola Hiria; eta Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza, Debagoiena.

Lau eszenatokietatik laugarrenean soilik jarraituko luke Azpeitia-Azkoitia guneak esanguratsua izaten Gipuzkoaren barruan. Gainontzekoetan, bai biztanleria eta bai jarduera ekonomikoa galduko litzuke. Kezkagarriena zera da: hausnarketa hori egin dutenen ustez, laugarren eszenatokia desiragarriena izanda ere, inertiak gainontzekoetara garamatzala. Hau da, gauzak aldatzeko ahaleginik ez badago behintzat, aukera handiena dutenak lehen eszenatokiak direla.

Baina zein izan daitezke eszenatoki bat edo beste gauzatzerakoan eragina izan dezaketen alderdiak? Bat baino gehiago dira eragin dezaketen faktoreak, baina oraingoan jarduera ekonomikoaren ezaugarrietaz ariko gara. Jarduera ekonomiko bartzuek besteek baino bilakaera hobea espero dute etorkizunean. Esaterako, puntako teknologiko sektoreek, oro har, sektore tradizionalak baino etorkizun argiagoa dute. Eskualdean ditugun jarduera ekonomikoa aztertuz gero, zera ikus dezakegu: enpleguaren ia erdia industriari dagokio, eta eskualdean dugun industria neurri handi batean sektore tradizional eta helduetan dago oinarritua;

ETORKIZUNA ►

Lau eszenatokietatik bakarrean soilik litzateke Azkoitia-Azpeitia gunea esanguratsua Gipuzkoan

Industria da motorra

gure ekonomiaren etorkizuna, beraz, era honetako sektoreari lotuta egon daiteke, eta sektoreok erronka larriak dituzte gaur. Behin eta berriz entzuten dugu Europako Batasunean ekialdeko herrialdeen sarrerak ekar ditzakeen ondorioen berri. Baina eskualdeko hainbat enpresek ez dute etorkizunera begiratu beharrik horrelako herrialdeetako enpresekin lehiatzeak dakartzan ondorioak ezagutzeko.

► **ZER DA GERTATZEN ARI DENA?** Merkatuan lehiatzeko bi modu ditugu. Lehen, ekoizkinik merkeena egitea da; bigarrena, merkeena ez izan arren, bezeroa ordaintzeko prest dagoen balioreen bat erantsia duena egitea. Lehen apustua, kostuetan lehiatzea litzateke; bigarrena, desberdintzapen estrategia jarraitzea.

Globalizazioaren ezaugarri nagusietakoa balio erantsi gutxiko ekoizpen prozesuen mugikortasuna da. Zenbait lekutan mugimendu horiek ikusgarriak izan dira, eta tokiko ekonomia lur jota utzi dute. Honek zera esan nahiko luke: eskualdean ditugun sektore tradizionalak kostuetan lehiatzera joango bagina, zuzenean kostuak oso baxuak dituzten enpresekin lehiatu beharko genukeela. Horrek gure enpresek merkatuetan arrakasta izateko aukerak asko mugatzen ditu.

Badirudi Autonomia Erkidego mailan definitzen ari diren politika nagusiak bigarren bidera zuzenduta daudela; hau da, desberdintzapena bultzatzera. Horretarako garrantzitsuak dira I+Ga bultzatzea, teknologia transferentzia erraztea, teknologia berrien erabilpena, kalitatea zertifikatzea, ezagutzaren kudeaketa, kualifikazioa, balio erantsi altuko sektoreak bultzatzea... Etorkizunera begira autonomia erkidegoaren ikuspegi baikorra zabaltzen digutek elementu horietan oinarritzen dute hausnarketa. Baina gure eskualdean ba al dugu aukerarik horietan guztietan oinarrituz balioa eransteko gaitasuna areagotu eta nazioarteko merkatuetan desberdintzeko? Hori da, gure ustez, 2020an lehen edo laugarren eszenatokira eraman gaitzakeen gakoa.

Eta horri dagokionez, inork ez dizkigu gauzak eginda emango. Izan ere, egiten diren apustuak ugari hiriburuen inguruko parke teknologiko eta hauen moduko azpiegituren inguruan ari dira gauzatzen. Joera horietatik kanpo geratuz gero, eszenatokiko batetik besterako saltoak gero eta gogorragoak izan daitezke. Ondorioz, oinarritzak izango da eskualdean elkarlanerako joera areagotzea, kualifikazioa hobetzeko ditugun tresna guztien (formazio zentro, teknologia zentro) erabilpen egokia bultzatuz. Azken batean, mehatxu moduan agertu ditugun alderdiak aukera ere bihurtu daitezke.

Xabier Aranbarri ► Arrasateko Eskola Politeknikoan Injenieritzan lizentziatua da. Gaur egun Azpeitian Laguntzailleko produkzio burua da (haren artikulu osoa www.uztarria.com helbidean irakur daiteke)

Gaur egun Euskal Herria, Europa eta oro har mendebalde, aldaketa prozesu batean murgilduta daude. Sistema kapitalista gero eta erradikalagoa da eta globalizazioaren eredu piramidala gero eta nagusiagoa gizartean edo ekonomian. Azpeitian ere eredu horren isla gero eta nabariagoa da. Herri txikiak, nahiz eta binztanlegoa mantendu, herri hilak bihurtzeko arriskua dago.

Azken urteetan, bizi kalitatea hobetzeko azpiegitura berri batzuk sortu badira ere, herri baten motorra ekonomia da. Zerbitzuak, nekazaritza, edo abeltzaintza baztertu gabe, industria da gurea bezalako herria sostengatu behar duena eta herriari bizia emango diona. Eta gaur egun garapen industrial, soilik enpresa partikularren ahalmenaren esku dago.

Gainera, Azpeitiko industria sarea zaharkitua dago. Enpresa eta komertzio txikien lehiakortasuna behera doa, eta lurreko baliabideen ustiaketan dihardutek kontrol gogor eta jasanezinak dituzte. Gizartea gero eta bakarti, berekoi eta materialistagoa da, eta etxebizitza berri eta ondasunak lortzeko dirua bilatzera mugatzen baikara, kapitalismo hutsaren oinarriek agintzen duten erara.

Illo nagusi horiek baldintzatuko dute 2020. urteko Azpeitiaren egoera sozioekonomikoa. Herriaren garapen ekonomiko eta sozialean, erakunde publikoen eta gizartearen arteko elkarlana sustatzeko formula berriak lortu behar dira, arazoak eta irtenbideak guztionak direlako.

Azpeitiak askoz ere azpiegitura industrial sendoagoa behar du, ingurumena errespetatuko duen industrigunearekin enpresa berriak sortzen edo kanpotik ekartzen lagunduko duena. Garapenaren aldeko apustu gogorrenekin, herrira

enpresa tekniko gehiago erakartzeko ahailekin bereziak eginez. Eta komunikazio aldetik, Euskal Herriko beste puntu estrategikoekin ongi lotua. Azken ziklo ekonomikoan ez bezala, baliabide publikoen babes sendoa behar luke: lurra prestatzen, legedia denek betearazten, laguntza fiskal eta publikoak ongi banatuz, eta errealtateak gertu. Nagusi-langile harremanak ere desberdina behar luke, langile prestatuagoen indarra eta parte-hartzea erabakigarria bihurtu dadin.

Hezkuntzan, gure herritik gertu ditugun adibide batzuk (MH Institutoa Elgoibarren, Arrasate...), non hezkuntza maila askoz ere espezializatuagoa den, bere fruituak ematen ari dira. Herri edo eskualde mailan, hemengo industriarekin lotura duen hezkuntza atalak landu behar dira, baliabide propioak sortuz edo, gutxienez, lehen aipatutako zentro horiekiko harremana sendogotuz.

► **ZERBITZUAK.** Zerbitzuena beste arlo funtsezko bat. Erabat manipulaturako gizartea izatera iritsi baino lehen, hausnarketa sakona behar da. Gure herrian zerbitzu sare indartsua eratzeke, lehen dagoenari bultzada eman behar diogu. Herriko zerbitzuak alde batera utzi eta hiriburuetakoetara bagoaz, nekez lagunduko dugu lehen daudenak indartzen. Komertzio txikiak elkar bildu eta edozein zentro komertzial handi beste zerbitzu emateko gai dira, beti ere herri barruan ongi kokatuta badaude. Kalitatea-prezioa-zerbitzua berdinduz joango lirateke zentro handiekiko.

Azken batean, 2020an beste herri eta bizimodu bat beharko genuke, garapen emankor eta sozialarekin, gizarte berdinduak bere herriaren norabideak markatuz eta eredu propioa sortuz.



azpeitiarrak MADRILEN

Martxoak 11, Madril: tren batzuk lehertuta, ia 200 hildako, giroa lehertuta, eta azpeitiarrak lekuko

► Testuak: **Enekoitz Esnaola** ► Argazkia: **Pedro García**

Madrilen bizi dira Jon Esnaola, Begoña Beobide, Maite Etxaniz eta Asier Agiriano azpeitiarrak, eta Uztarrria lau haiekin egon da, martxoaren 11koa gogora ekarriz.

JON ESNAOLA ►

“Orain bi fronte dituzte, eta ez dute sinetsi nahi”

Jon Esnaola Madriletik 20 kilometro bira bizi da, Boadilla del Monte, baina Madril en egiten du lan, supermerkatuen aparejadore bezala, duela urte batzuetatik. Martxoaren 11n goizean goiz irten zuen etxetik, lanera joateko, kotxez, ohi bezala. “Irratia piztu nuen, eta ordurako ari ziren esaten atentatua egon zela baina artean hildakoen berri ez zuten ematen”. Lasai antzean abiatu zen, beraz, Madrilera, amak poltsikoko telefonora deitu zion arte. “Zer pasatzen da, Madril en?!” esanez deitu zidan. Buelta hartu eta etxean utzi nuen kotxea, Donostiako matrikula dudalako eta...”.

Autobusa eta metroa hartuta iritsi zen lantokira; atentatu leku batetik gertu du laneko lekua. “Hura koadroa lanean! Ask

odola ematera joanda zeuden, eta zeudenek ez zidaten ezer esaten. Irratiari baino ez zioten egiten kasu. Nik esaten nien nire ustez ETA ez zela atentatuen egilea, baina haiek ezetz, ez zutela sinesten hori. Gainera, Madrilgo komunikabideak egilea ETA izan zela esan eta esan ari ziren, eta hemengo jendeak komunikabideek diotena itsu-itsuan sinesten du. Lankide bati Arnaldo Otegi prentsaurrekoan esan zuena erakutsi nion, euskal webgune bat irekiz; lankideak irakurri zuen baina ez zuen nahi sinesterik. Alferrik ari nintzen, hortaz. Eta beldurra sentitzen nuen. Aste bukeran etxetik ezta irten ere ez nuen egin”.

Talde islamdar indarkeriazko batek segituan esan zuen bera izan zirela atentatuen egilea, “baina jendeak ez zuen sinetsi nahi atentatu egilea Al Kaeda edo izan denik. Eta hauxe da arrazoa: Espainiak orain bi fronte izango ditu, ETArene eta Al Kaedarene. Espainiarrek uste dute ETA garaitua dutela, baina orain Al Kaeda... Jendeak askoz nahia go zuen egilea ETA izatea”. Baina ez da izan. “Eta, pentsa: jende

batek ez du sinetsi nahi oraindik. Al Kaeda=ETA kartelak ugari ikusten dira hemen”.

Panikoa omen dago hirian. “Lehenengo batean gertatu zitzaigun: lagun bat eta biok sartu ginen taberna batera zer bait jatera, mahaia hartzeko poltsa utzi genuen eta jendea segituan hasi zitzaigun begiratzekin; jakina, poltsa bat utzi genuen... Beste batean, berriz, trenean nahita ibili ginen lagun bera eta biok lasterka, geltoki bakoitzean bi bagoi aurrera eginez, eta lagun madril dar horrek gelditzeko esan zidan, jendea arraro begiratzen hasi zitzaigulako eta urduri antzean jartzten hasi zirelako”. Beste pasadizo bat ere kontatzen du Jon Esnaolak: “Lehen dendatan eta zinpeko guardiak gora begira egoten ziren, asper-asper eginda; orain lanean ari dira”.

Atentatuak izan zirenetik ia hila bete pasatu da eta Madril ek “hunkituta” segitzen du. “Uler tzen dugu, nola ez. 190 hildako egon dira, eta aurreneko gauza bizia da. Baina euskaldunoi gogorra egiten zaigu Madril Espainiako banderez josita ikustea. Pentsa, hemengo dendatan gas



tatu egin dira banderak, eta esaten dutenez, Santiago Bernabeu partida hasieran banderak eta saltzen ibiltzen direnak dirutza egiten ari dira”.

BEGOÑA BEOBIDE ►

“Manipulazioaz Madril en orain ohartu dira”

Atentatuei buruzko informazioaren manipulazioa egon zen martxoeko egun haietan, eta Begoña Beobidek alde horretatik gertututik bizi izan zuen gertaera, Sogecablen egiten duelako lan, 2001etik —ar lo teknikoan—, eta lantokiko eraikin berean daude CNN+, Canal +... Hau da, bertatik bertara usain zezakeela informazioa. Gainera, komunikabide horiek PSO Eren ingurukoak dira eta haiek izan ziren atentatuetatik ordu batzuk pasatu eta gero Espainiako Gobernuaren aurrean burua makurtu ez zuten bakarretakoak. “Martxoaren 11n egun-



GELTOKIAN.

Ezkerretik hasita, Asier Agiriano, Begoña Beobide eta Jon Esnaola, Madrilen, Atocha geltokian. Maite Etxaniz Mexikora joan berria zen argazkia atera zen egunean.

atentatuen egilea ETA zela ("ETA bere bukaera idazten ari da. Demokrazia leherrarazten saiatu da. Atentatua egin dutenak ez dira euskal herritarrak, hiltzaile eta basapiztiak baizik", esan zuen, goizean goiz), eta Espainiatik begiradak Euskal Herrira zuzendu ziren. Eta azpeitiarrak Madrilen. Begoña Beobidek esaten duenez, orde, berak ez zuen bazterketa-rik-eta sentitu. "Nik lantokikoei eta lagunei hasieratik esan izan diet nola pentsatzen dudana, aber- tzalea naizela, baina ez dudala indarkeria justifikatzen, indarkeria-

ren kontra nagoela, ni bezala Euskal Herriko gehiengoak, eta errespetatzen naute". Baina batzuetan kostatu egiten omen zaie. "Behin batek esan zidan Ibarretxe ez duela ezer egiten ETArek atentatu bat dagoen bakoitzean. 'Nola ezetz', erantzun nion. 'Ez al dituzu haren adierazpen entzuten, haren irudiak ikusten kontzentrazioetan eta?'. Ezetz esan zidan. Hurrena atentatu bat balego, irudiak-eta grabatu eta bideoa propio emango niola erantzun nion. Eta egon zen atentatu bat, eta bideoa eman nion. Hor ikusten da Espainiako komunikabide batzuek nola manipulatu duten; gertatzen da hemengo jendeak Madrilgo atentatuen ondorioz ikusi duela hori".

Atentatuen hurrengo egunean, ostiralez, Euskal Herrira itzuli zen Beobide, laneko kontu bategatik, eta asteazkenean atzera lanera bueltatu zenean izan zen beregan- a propio hurbildu zenik. "Esan

dut hasiera haietan jendeak ez ninduela baztertu, baina bai egin zizkidatela aipamen batzuk, ze- harka zerbait adierazi nahi beza- la; 'Bego, nire emaztea joan zite- keen tren hartan...' eta horrelako- ak, bazkaltzen ari ginela. Lanera itzuli nintzenean hori bota zidanak berak esan zidan akordatu zela bazkariko solasaldi hartaz".

MAITE ETXANIZ ▶

"Lanean aurrean izaten nuen emakumea hil egin zen"

"Lantokian aurreko aulkia hutsik daukat, aurrean izaten nuen emakumea ez da martxoaren 11z geroztik itzuli. Trenean zetorren lanera. Baina ezin naiz imajinatu itzuliko ez denik. Ez ginen agurtu. Hil egin zen, bai". Horrela mintzo da Maite Etxaniz. Madrilen bizi da, 2002tik; kotxeak alokatzen dituen multinazional batean marke- tingen egiten du lan, "emakume haren aurrean". Badu haren isto- ▶

Madril ia egunero Iraken

Joseba Iriondo, ETBko kazetari azpeitiarrak Berria-ri eskaintako elkarrizketa batean esan du Madril asko ikusi zituela Iraken, orain dela hilabete batzuk berriemaile bezala lanean aritu zenean: "Madrilekoa ikusita, behin baino gehiagotan etortzen zitzaizkidan Bagdadeko irudi haiek: nahasmena kalean eta ospitaleetan, urduritasuna, jendea negarrez, hildakoak eta zaindu ezin ziren zaurituak maiz ikusten genituen Iraken ere. Gordinagoa da, beharbada, Madrilgoa, atentatu bat zelako eta ez zelako espero. Bagdaden bagenekien lehenago edo geroago gertatuko zela. Ezustekak ñabardura ezartzen dio Madrilgoari, baina hori da bakarra. Bagdaden, egunero ez, baina ia egunero gertatzen ziren halakoak. Gainera, Irak aipatzen dugunean beti Bagdad datorkigu gogora, baina Basora ere hor dago, Kerbala hor dago, Najaf hor dago, eta beste hainbat, eta hango sarraskiak ez zituen inork ikusi. Horregatik, esango nuke M-11 asko egon direla, Iraken ez ezik, Afrikako zenbait lekutan ere egunero ia. Negargarria da, baina gizarteak hala daude egituratuta".

» riobat kontatzeko: "Orain dela hilabete pasatxo elkarrekin gindoa zen haren kotxean, eta esan zidan zorte txarra zuela errepidean autokin, bi istripu izana zelako, eta gure lantokiak tokiz aldatu behar zuela-eta handik aurrera lanera trenean joaten hasi behar zuela zioen hark. 'Lasaiago joango naiz, irakurri egingo dut, martxo-ko bonoa aterako dut...' esaten zidan. Eta halaxe hasi zen. Martxoaren 11 hartan lanera iritsi nintzenean, emakumea falta zen. Banekien tren haietako batean behar zuela, banekien ordu hartan irten zuela lanera..."

Ezjakintasunagatik eta ustez interesez politikoengatik atentatuen egilea ETA izan zela esaten hasi ziren ia euskal agintari denak, eta

gero, ETA izan ez zela jakin zenean, "lasaitua" hartu zuten agintari haiek beraiek. Bitartean, handia zen presioa euskal herritarrekiko. Hala ere, Maite Etxanizek ez zuen beldurrik sentitu. "Agian, emakume haren heriotzagatik izango zen, drama gertu tokatu zitzaigulako; elkartasun handia sentitu nuen lagunaren eta lantokiko enparietatik". Ba omen da beste faktore bat: "Lagunek-eta badakite euskaltzalea naizela eta jakingo dute politikoki nola pentsa dezakedan, baina, aldi berean, badakite ni edozein indarkeriaren kontra nagoela. Eta horregatik ere lasai egon izan naiz, alde horretatik txinatar bat banintz bezala sentitu nintzen egun haietan, ez ninduelako eragin".



Joseba Iriondo Pakistanen. J. IRIONDO

ASIER AGIRIANO ▶

"Zortzi urteko frankismoaren bukaera ospatu genuen"

Asier Agirianok martxoko egun historiko haiek beste era batera bizi izan zituen: asko mobilizatu. "PPren egoitza nagusiko manifestazio hartan izan nintzen, Madril bilbotar batzuen Lamiak tabernan biltzengareneuskar herritarrekin batera. Telefono mugikorretan mezuak jaso genituen, Aznarren, Urdaziren... kontrakoak, eta Puerta del Solen egon behar zela esanez; joatera animatu ginen. Aurreko eguneko manifestazioa ere joan ginen".

Ez zaio berehalakoan ahaztuko PPren egoitza aurreko egonaldia. "Oraindik urduri jartzten naiz kon-

tatzean. Jende asko bildu ginen, eta polizia asko zegoen, armekin, egoitza zaintzen. Baina bukaeran polizia askok pasilloa egin ziguten, armak jaitsi zituzten, burukoak kendu eta negarrez hasi ziren. Gurekin bat egin zuten".

Atentatuak gertatu eta lau egunera izan ziren Espainiako Gorte-etarako hauteskundeak. PSOEk irabazi zituen. "Madrilgo alde zaharrera ospatzera joan ginen Lamiak tabernan biltzen garen asko; zortzi urteko frankismoaren bukaera ospatzera. Gau-pasa egin genuen". Astelehena jai zeukan... Ileaipaindegi batean egiten du lan Agirianok —2000tik dago Madril, hasieran antzerkiko eta dantzako lana egitera joanda—.

Martxoaren 11 hartan ere ia jai eduki zuen. "Bezperan Azpeitian nengoan, eta egun hartan nintzen Madrilera iristekoa, goizez, trenez, Chamartinera [han ez zen atentaturik izan]. Baina neure kontu bat zela-eta bidaia atzeratu egin nuen; arratsaldez iritsi nintzen, autobusean. Joan nintzen lanera, eta ostegunetz normalean lan asko izaten badugu ere —30 bat lagun hartzen ditugu—, orduan lau besterik ez genituen izan. Jendeak ez zuen etxetik mugitzeko gogorik; informazioa nahi zuen eta telebistaren aurrean gertatu zen. Eta zer esango dut ba; euskaldunoi hasieran ez ziguten aurpegi txarrarekin begiratzen, bai beste era batera". ◀

Biele

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA



EPELDE INMOBILIARIA

Goiko Kale, 1 - Behea
Tfona/Faxa: 943 15 03 31
20730 AZPEITIA




CONSTRUCCIONES
ANTZIBAR
ERAIKUNTZAK

hitzeko

euskara zerbitzuak

665723979
telefonoa

itzulpenak - zuzenketak - normalizazio planak - komunikazioa



Iñaki
Uranga ▶

Datuak.

- ▶ 1977.
- ▶ Azpeitia.

Ibilbidea.

- ▶ Argazki Elkartekoa.
- ▶ Argazki-poesia liburua egiten ari da.

lasterkatik APARTE

Martxoaren 27an izan zen Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia eta han izan zen Xabier Iturralde; hasi aurretik eta ondoren segitu zion Uztarriak




BAZKARIA, 11:00-ETAN.

16:30ean zen maratoi erdia eta Xabier Iturraldek goizeko zortzietan gosaldtu zuen (arroz-esnea, barra txikiak eta zumoa) eta 11:00etan bazkaldtu (pasta, zumoarekin). Indarrak hartzeko.



SEME-ALABEKIN.

Goiz partean kalera buelta bat ere eman zuen Xabier Iturraldek, Ainara eta Xabier seme-alabekin (bikiak dira). Sanjuandegin bizi dira. Argazkian, Agirre plazan.



ETXEAN, LASAI.


Trote handirik gabeko goiza izan zuen, arratsaldean bazuen-eta lanik, ordubete pasatxokoa. Egunkaria pixka bat leitu, eta bazkalondoren lo-kuluxka bat bota zuen.

BEROTZEN.

Igerilekuan elkartu zen lagunekin, eta han aldatu ondoren, Azkoitira joan ziren. Bertan egin zituen beroketa ariketak. Irten baino ordu laurden lehenago masajea hartu zuen.

ESPERO ZUEN DENBORA.

Min hartuta ibili da azkenaldian, eta ordu eta laurden inguru egiteko helburua zeukan, maratoi erdiko beste aldietan baino "suabeago" irteteko asmoa. 1.16.15 egin zuen.



BUKATUTA.

Freskatzeko eta atsedean hartzeko unea zuen, maratoi erdia bukatuta. Atletismo munduko lagunak agurtzeko ere aprobetxatu zuen. Iturraldearen taldea Avia da, Gasteizkoa.

DUTXARA.

Atzera Azpeitiko igerilekura, baina orain dutxa hartzera. Bukatu zituen lanak loiolatarrak. Hurrengo proba arte. Gauean, afaltzera irten zuen. Igandean, ordea, 40 minutuko entrenamendua egin zuen.

Herri aldizkariaren diseinu berria ▶



▶ 99-azaroa. ▶ 02-urtarrila. ▶ 04-apirila.

Uztarriak beste ahalegin komunikatibo eta informatibo bat egin du orain, herri aldizkariaren diseinua berritu egin duelako.

Zergatik.

▶ Urola-Kostako Hitza egunkaria otsailean sortu zen, eta hura egunerokoa izanda, herri aldizkaria pixka bat aldatu beharra zegoen.

▶ Gero eta produktu hobea eskaintzeko.

Ezaugarriak.

▶ Diseinu garbiagoa, freskoagoa eta modernoagoa egin nahi izan dugu.
▶ Atseginagoa; altueran, 2,7 zm txikiagoa.

Tirada.

▶ Behin ere baino handiagoa: 2.400 ale.

Kobraketa azaroak

Arazo informatiko batzela medio, Uztarriaren urteko kuota bi aldiz kobratu zaie hainbat bazkideri. Uztarriak segituan abisatu zien gutun bidez, arazoa nola konpondu esanez.

Hitzarmena falta

Uztarriak 2002ko urtarrilean egin zion Udolari Komunikazioko hitzarmena berritzeko proposamena, baina oraindik ez dago ezer. Horrek ezegonkotasuna dakarkio Uztarriari.

'literatuzta'-ren bigarrenetan 14 LAGUN

Kalean da Literatuzta gehigarren 2. zenbakia; iaz argitaratu zen aurrena, uztaillean. 40 orrialde ditu, eta hauek hartu dute parte: Mikel Aierbe, Olatz Prat, Naiara Altuna, Itxaso Andres, Xabier Borda, Fernando Morillo, Pako, Ion Pozo, Anne Agirre, Alaitz Olaizola, Kepa Urbietta, Igor Aranbarri eta Josu Salegi azpeitiarrek, eta Odei Arregi azkoitiarrak.

Gehigarria egiten duen taldeak hainbat ekitaldi antolatatu ditu. Apirilaren 1ean, Asier Serranok solasaldi musikatu eskainiko du,



Sindikatu Zaharrean, 21:00etan. Apirilaren 2an, Harkaitz Canok Hirisladak poesia emanaldia, Betharramdarretan, 22:00etan.

▶ **NOLA ESKURATU?** Uztarriak hainbat modu jarri ditu herritarrek Literatuzta-ren zenbakia eskuratzeko.

▶ **Uztarriaren bazkideek.** Doan izango dute. Uztarriaren egoitzara etorri besterik ez dute, edo leku hauetara joan: Zuhatz, Orkatz edo Urtzi tabernetara, eta Ekliipse kultur dendara.

▶ **Uztarriaren bazkide ez direnek.** Euro bakar batean edukiko dute salgai: Zuhatz, Orkatz edo Urtzi tabernetan, eta Ekliipse dendan.

▶ **Ikastetxeetan.** Azpeitiko ikasleek eta irakasleek eskura izango dute.

egin zaitez bazkide UZTARRIAN



Zure datuak Uztarriari helarazteko aukerak:

▶ Julian Elorza Hiribidea 4, behea eskubia (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
▶ uztarrria@topagunea.com ▶ Telefonoa (eta faxa): 943 15 03 58 ▶ www.uztarria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

NAN edo EHNA ▶

HELBIDEA ▶

HERRIA ▶

TELEFONOA ▶

E-MAILA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKIAK (harpidedunek ez*) ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 24 euro.

Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarrria herri aldizkaria.
- ▶ Imanol Elias eta Patxi Altuna biografiak.
- ▶ Azpeitiko efemerideak erdi prezioan (nahi baduzu).
- ▶ Mendi gida erdi prezioan laster (nahi baduzu).
- ▶ Literatuzta.
- ▶ Urola-Kostako Hitza.

*HARPIDEDUNAK ▶

Uztarrria diruz lagundu nahi ez baduzu.

Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarrria herri aldizkaria.
- ▶ Urola-Kostako Hitza.

798

bazkide gara
dagoeneko
Uztarrian;
eskerrik asko
denei

Gurean ▶

ENEKO ETXABARRIETA

▶ abenturazalea

"Bizikletan ez naiz hemendik pasatu"

Eneko Etxabarieta, Miyuki Okabe emaztearekin (argazkian) etorri zen lehen-go hilean gurera, ikusentzuneke emanaldia ematera. Lau urtez ibili da munduan bizikletaren gainean.

**Lehen aldia al da Azpeiti-
ra etorri zarela?**

Bai, orain arte ez nintzen inoiz izan hemen.

**Bizikleta gainean pasatu
al zara inoiz Azpeititik?**

Ez, ez nuen horrelako aukerarik izan.

**Ikusentzunekean zer ari
zara eskaintzen?**

Egin dudana bidaia berri ematen dut. Normalean, nahikoa harrera ona izaten dut. Azpeitian ere bai.

**Abentura zaleei zer esan-
go zenieke?**

Gogoarekin ez gelditzeko esango nieke, abenturak merezi duela eta. ◀



Enrio baserria erre; bi hildako.

Martxoaren 12an goizaldeko hirurak aldera hartu zuen su Matxinbenta auzoan Enrio baserriak. Sutearen unean hiru anai-arreba zeuden etxe barruan, lotan. Sutea, piztuta zuten kandela batek sortu zuen. Ezbeharrean Maria eta Teresa Lasa ahizpak hil ziren. Anaia garaiz ohartu zen suteaz eta alde egiteko denbora izan zuen.




Haurrentzat txoko berria.

Martxoaren 8an Iraurgi Ikastetxean haurtzaindegi berria ireki zuten. Haurtzaindegi berri horrekin herrian dagoeneko lau daude: hain zuzen, ikastatxe guztietan bana eta Uztaro haurtzaindegia.

Esteban Larrañaga omendu zuten.

Martxoaren 19an Esteban Larrañaga Trikitilari Elkarteak lehendakari ohia omendu zuen EITBk, kiroldegian. Jende ugari inguratu zen omenaldia ikustera. Hunkitzekoa izan zen.



Jokin Uranga txapeladun.

Jokin Uranga herritarra izan da gazteen II. Erniarraitz bertso txapelketako irabazlea. Martxoaren 26an izan zen finala, Soreasun. Beñat Lizaso bosgarren geratu zen, Leire Ostolaza seigarren.



■ ■ ■

MARTXOAK 10 ▶ Erdi kalean Eliz kalerako pasabidea zeukan etxea bota zuten. **MARTXOAK**

21 ▶ Kepa Peñagarikano pilotaria banakako txapelketatik kanpo gelditu zen. **MARTXOAK**

27 ▶ Herriko Emakume Taldearen kontzentrazioa egin zen, herriko emakumeak jasaten ari diren erasoen aurka. **MARTXOAK 25** ▶ Sarralleneke 28 langileri Loteria Primitiboa tokatu zitzaizen; bakoitzari 34 mila euro.

MARTXOAK 27 ▶ Azkoitia- Azpeitia maratoi erdian Songoka irabazle, marka eginda; neskatan, Pulido.

APIRILAK 4 ▶ Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta, Urdaibaira eta Gaztelugatxera irteera.
APIRILAK 19 ▶ Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta, Santa Engrazira gaztetxoentzako irteera egingo da. **APIRILAK 22** ▶ Zapo Txokok antolatutako maiatzeko Josi eta plantxatu, brikolaje eta Sabel dantza ikastaroetan izena emateko azken eguna. **APIRILAK 22** ▶ Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta, mahaingurua, Euskal Herria = Nafar estatuaren eskola nazionala izenburupean.



III. EUSKAL ESKOLA NAZIONALAREN EGUNA.

Aurten berriz ere Azpeitian izango Eskola Nazionalaren aldeko eguna, hilaren 25ean (igandea), eta Ikasberri Nabarraldeko kideak omenduko ditu. Iaz, Egunkaria-ko langile azpeitiarrak.

APIRILAK 25 ▶ Egun osoan ▶ Plazan ▶ Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta

MIRIAM AIZPURU ▶ 'Pausoz pauso' ekimenean lekukoa eramango du

“Presoen **egoera larria ikusita** zerbait egin beharra dugu”

Apirilaren 3 an Pausoz pauso ekimena pasatuko da Azpeititik, Euskal Herriaren alde eraginez, euskal preso politikoak Euskal Herrira lelopean. Zarautzen hasiko da goizean ibilbidea eta Azkoitia bukatuko da iluntzean. Ibilbide horretan Urola-Kostako herri ugari zeharkatuko ditu.

Miriam Aizpuruk herrian lekukoa eramango du zati batean. “Orain arte ahal izan dudana guztietan hartu dut parte horrelako ekitaldietan, baina behin ere ez zait gustatu lekukoaren kontu hori”, dio. Oraingoan “tokatu” egin omen zaio, ordea.

“Lagunek jakin genuenginen Askatasunakoak koadrilei deialdia egiten ari zirela parte hartzeko eta animatu egin ginen. Izan ere, presoen egoera gero eta larriagoa dela ikusita, guztiok ahal duguna egin

behar dugula pentsatu genuen”.

Presoek “prozesu politikoan parte hartzeko duten eskubidea ziurtatzea ezinbestekoa” da haren ustez, eta “presoak etxera ekartzea”. ◀

APIRILAK 3 ▶

‘Pausoz pauso’.

- ▶ 17:30ak aldera.
- ▶ Herria zeharkatuko du.
- ▶ Askatasunak antolatuta.

Besterik ▶

APIRILAK 8-12 ▶

Benasquera irteera.

- ▶ Lau eguneko irteera.
- ▶ Irteera azoka plazatik.
- ▶ Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta.



APIRILAK 3 ▶

Rally Sprint.

- ▶ 15:00etatik aurrera.
- ▶ Errezilgo bidean.
- ▶ Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta.

APIRILAK 3 ▶

‘Joxe Takolo beka’-ren banaketa.

- ▶ 12:00etan.
- ▶ Udaletxeko areto nagusian.
- ▶ Udalak antolatuta.
- ▶ Irabazleak: Leire Agirre azpeitiarra eta Trangoko dorreak espediziokoak.



UMEKERIA

ote?

Nahiz eta inguruan gutxi ezagutzen den artea izan, herrian hiru komiki zale daude: Josu Goenaga, Igor Elorza 'Elo' eta Jon Berdejo. Eta ez dira umeak

► Testuak eta argazkiak: **Amaia Mendizabal-Oihana Elduaen**

Komiki zale amorratuak dira Igor Elorza Elo, Josu Goenaga eta Jon Berdejo azpeitiarrak; txiki-txikitatik izan ere. Orduan, haurtzaroan, gurasoek sari gisa eskaini ohi zizkieten komikiak; ondo portatuz gero eskuratzen zituzten altxor gisa. Edo medikuarengana joateko ordua iristean, euren protestak gurasoek isiltzen zituzten, marrazkiz eta istorioz jositako karmeloekin. Berdejok dioen bezala, ordea, komikiak eta istorioak euren batera joan dira hazten, eta gaur egun ere umetako zaletasunari eutsi diote. Orain, ordea, bestelakoak dira irakurtzen dituzten komikiak: "Hauek ere, irakurleen martxa berean, heldu bilakatu dira". Haren hitzetan, "komikiak ere aldatzen doaz urteak bitarteko. Karpantarekin edo Zipi Zaperekin hasi eta gero, gauza serioagoen bila jotzen duzu, gai ilunagoak-edo behar dituzu. Izan ere, adin guztientzako komikiak daude".

Hala eta guztiz ere, hirurek onartzen duten bezala, inguruko jendearengan badago, oraindik ere, komikiak haurren kontua den uste ustel hori. Hala dio Elok: "Komikiak irakurtzen ditudala esan izan dudak bakoitzean, zera esan izan didate: 'Komikiak? Horiek umeenak ez al dira ba?'. Kri-

tika hori beti izan dugu. Gainera, beti, 'zer irakurtzen duzu: Mortadelo eta Filemon?', esaten du jendeak; muga horretatik aurrera ez dute ezagutzarik. Hortik aurrera ere beste istorio asko daude, komikiak asko landuak izaten dira".

Ideia beraren inguruan aritu da Josu Goenaga ere: "Egia da kutsu infantila baduela komikiak, baina, era berean, komikiak hiru arte batzen ditu: literatura, pintura eta zinema". Artearen ideia hori azpimarratzen dute behin eta berriro. "Nik —dio Berdejok— jendeak komikien inguruan duen ikuspegia aldatzea nahi nuke. Liburu bat irakurtzea baino errazagoa eta azkarragoa da komiki bat irakurtzea. Batzuetan ezin izaten dituzu eszenifikatu liburuetan agertzen diren zenbait ideia, ez duzu irudia argi ikusten. Komikiak lan horretan asko laguntzen du. Begiratzeko gauza asko daude, ez da nahikoa 'bokadiloa' irakurri eta aurrera egitea, binetako bazterrak miatu behar dira, txokoetan sinbolo asko egon ohi dira eta horiei ere arreta eskaini behar diezu. Horrekin esan nahi dudana zera da: komikia ez dela haurrei ikusmiran jarduteko ematen zaien zerbait bakarrik, gauza serioak

ere badaude horietan, eta istorio aldetik garapen handia egon da nire ustez".

Gaiei dagokienean ere "aukera galanta" dago komikietan, eta bakoitzak nahi duen edo jakin-mina sortzen dion gaiaren bueltan egindako komikiak aurki ditzake. Umekeriez haratago, kritika sozialak ere lekua baduela diote. Hala dio Josu Goenagak, behintzat: "Charlie Brownen garai hartako gizartea kritikatzeko zuen".

► **HELDUEN LANA.** Berdejo ados dago ikuspegi horrekin, eta Simpsonsekin konparaketa egite-raino ausartu da: "Snoopy gaur egungo Simpsonsekin alderatuko nuke. Garaiko gizarteari zuzendutako kritika eta amets amerikarra esaten dugunaren aurkako erreakzioa izan zen. Eguneroko bizimodua satirikoki islatzen saiatzen dira. Komikiak umeentzako diren klitxe hori gaitzitu bage-nu, beharbada ohartuko ginatke zeru urdin eta laino zuri horien atzean dagoen lanaren neurriaz. Ez dugu preziatzen, agian ez digutelako erakutsi, baina itxura infantil horren atzean heldu batzuen lana dago. Garbi izan behar da, nahiz eta itxura hori ez eman, komiki bat oso ironikoa izan daite-

Josu Goenaga

Adina. 26 urte.

Komiki bilduma. 100 inguru.

Autore bat. Alan Moore.


Komiki bat. Los fabulosos freak brothers (François Bourgeon).

Irakurtzeko leku bat. Ohea.

Ordenagailuz edo eskuz. Eskuz.



► Komikiak berak hiru arte hartzen dauzka: literatura, pintura eta zinema"



GOZAMENA.

Mundial pasatzen dute hiru azpeitiarrek komikiekin. Uztarriak hirurak bildu ditu aldizkarirako erreportaia egiteko, eta denbora asko pasatu dute elkarren bildumak ikusten. Argazkian, ezkerretik hasita, Igor Elorza, Jon Berdejo eta Josu Goenaga.

»

» keela. Agian, umeen xalotasun horretaz baliatzen dira guri mezu landuak bidaltzeko”.

► **HERRIAK EZER GUTXI.** Zaletasuna handia izan arren, hiru azpeitiar hauek badute hamaika arazo komikiak eskuratzeko orduan. Izan ere, herrian ezer gutxi aurkitu omen daiteke. Hori dela eta, gehienetan hiriburuetara jo behar izaten dute, bereziki Bilbo eta Donostia aldera. Hirietan komikigintzan espezializatutako dendak aurki daitezke, edo literaturaren inguruko denda handiak, Bilintxen antzerakoak. Hori bai, Josu Goenagak dioen bezala, “alde batetik, ia denda guztia hartzen, eleberririk daude, eta gero, txoko batean komikiak, apala zokor batean edo”.

Denda horiez gain, Bartzelonara ere joan izan dira, han komiki munduaren inguruan kultura handiagoa baitago eta azokak-eta antolatzen direlako. “Bartzelonako erakusketa Durangoko azokaren oso antzekoa izaten da. Ale berriak eta zaharrak, egile famatuak euren lanak sinatzen. Eta sariak ere ematen dituzte”, dio Goenagak. Berdejoren hitzetan, gisa horretako jaialdietan “komikigintzan hasiberriak direnentzat ere aukerak egoten dira”. Hala ere, ez da erraza mundu horretan mugitzea. Elorean iritiz, “landu beha-

rreko afizioa da: interneten begiratu, berrikuntzen berri izan...”. Argidago ez dela zaletasun eskuragarria.

Horren guztiaren errua kultura zer den eta zer ez den erabakitzen duen eliteari leporatzen dio Goenagak: “Komikia azken mailako kultura bezala egon da, lehen rock&roll-a bezala (ez dago konparatzerik rock&rollak eta operak duten onarpena). Literatura bezala da: batzuei nobel saria ematen diete, eta beste batzuk, oso onak izan arren ere, ez zaie beraiei lana baloratzen, gaiaren-eta arabera. Nire ustez, komikiarekin antzeko zerbait gertatu da, ez dute kultura bezala onartu nahi izan”.

Lekuaren arabera ez dute garapen bera komikiek, ordea, eta gurean ez omen zen garairik egokiena tokatu: “Komikia garatu zenean, frankismoaren erdi-erdian geunden hemen”, dio Josu Goenagak. “Frankismoak literaturan, zinean... ezer uzten ez zuen bezala, komikian oraindik eta gutxiago. Beraz, komikia umeentzat produktuak egitera mugatu zen: Mortadelo, Karpanta...”.

► **ZALETASUN GARESTIA.** Komiki zaletasunak arazo asko ditu, eta, aurretik aipatutakoei, diruarena gehitu behar zaie. Izan ere, ez da merkea komiki bat erostea.

Igor Elorza

Adina. 28 urte

Komiki bilduma. 200etik gora.

Autore bat. Herman.

Komiki bat. Los pasajeros del viento (Gilbert Shelton).

Irakurtzeko leku bat. Etxeko sofa.

Ordenagailuz edo eskuz.

Eskuz.



“Komikiak irakurtzea umekeria dela uste du jendeak; hala esaten digute”



**KIRURI
JATETXEA**

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfnua.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

ERAKUSKETA:
Eliz kalea, 12 - behea
Tfnua. eta faxa: 943 81 12 12
BILTEGIA:
Landeta Hiribidea, 19
Tfnua. 943 15 16 66
20730 AZPEITIA
E-mail: iturralde@euskalnet.net

**Bainuak
eta
bainu osagarriak**

ESKANTZEN DUGUNA

Iturgintza
Berogailua, klimatizazioa, EUB eta
berauen mantenu lanak
Gasa (EG-IV kategoria)
Erregai likidoak




ITURRALDE Iturgintza, S.L.



**AMALUP
lorazaintza**

- Lorategien proiektuak
- Zuhaisken kimaketa
- Lorategi eta zelaien mantenua
- Belar landaketa eta tepe, egur, harri edo txilar jartzea

943-025319 (Azkoitia)
679106753 (mugikorra)



LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net



Jon Berdejo

Adina. 33 urte

Komiki bilduma. 100 "erraz".

Autore bat. Giraud; Moebius ezizena.

Komiki bat. Maus (Art Spiegelman).

Irakurtzeko leku bat. Ganbara.

Ordenagailuz edo eskuz. Eskuz.



Elok dioenez, "oso-oso garesti daude komikiak. 48 orrialdeko bat, tapa gogorarekin, 20 euro ordaindu nituen azkena, eta 1 tapa normalarekin, 10. Guztira, bi komikitan, 30 euro. Diru asko xahutzen da komikietan". Horregatik, askotan trukera jo behar izaten dute, Berdejok esaten duenez: "Zer erremedio! Nahiz eta badugun bildumagile kutsua ere, hobe da zenbait komiki aurretik ikustea, merezi duen ala ez erabakitzeko. Gertatu izan zait, Watchmen-en kasuan, esate baterako, lehenengo norbaitek utzita irakurri, eta, 'honek merezi dik' esan eta neuk edukitzeko erostea. Baina, bestela, elkarri trukatzeko horretan asko diru aurreztu ohi dugu". Haren hitzak baieztatu ditu Goenagak: "Bai, horrela ibiltzen gara. Erostea ere ez da oso erraza eta. 'Nik badiat bat ederra' eta besteak 'jo, ba utzidak!' eta horrelaibili behar izaten dugu".

Dirudienez, gainera, antzeko gustuak dituzte hirurek ere, eta horrek, seguru asko, erraztu egingo du trukearen kontua. Berdejok eta Elok aitortu dutenez, gerlarien komikien zale amorratuak dira. Elori "denetik" gustatzen zaio, "super heroienak" izan ezik; "batik bat, historiakoak gustatzen zaizkit, piratak eta... ezpatekin ibiltzen direnak, gerlariak, Konan, eta antzekoak. Bestela-

Datua ▶

500

KOMIKI.

Hiruren artean 500 aleko bilduma osatzen dute, eta ale horietan milaka istorio daude. Liburuetako batzuek kontakizun bakarra ematen dute, eta beste batzuek gehiago.

koak ere bai, amerikarrak eta. Horiek ere gustatzen zaizkit, baina esan bezala, batik bat, gerlariak". Berdejo bat dator gustu horretan: "Gerlarien zalea naiz. Super heroi batzuk ere badituz, baita Mortadelo eta Filemon eta antzerakoak ere. Denetik pixka bat. Errealismo handiena dutenatik hasi eta mantxa bakan batzuekin marraztuta daudenak arte. Bildumak ere asko erosi izan ditut, merkeago direlako".

Hirurak irakurle amorratuak izanik ere, ordea, Berdejo da marrazterako pausua eman duen bakarra; adibidez, Uztarria herri aldizkarian atala du: Trauskil. Dena dela, marrazteari ez diola serioegi heldu dio: "Zerbait egin izan dut. Beti asmoak, baina inoiz ez dut aurrera egin; adibidez, 'ba, nora-nora bidaliko ditut lanak' esanez. Ez, horrelakorik ez". ◀

Agian umeen xalotasunaz baliatzen dira geuri mezu landuak bidaltzeko"



LAZKANO - OLAIZOLA
Aholkularitza Inmobiliarioa

PROMOZIO BERRIAK

ZESTOA

102-188 m²
3-4 logela

ENPARAN

94 m²
3 logela

FORU IBILBIDEA

Logela 1 edo 2
69m² edo 72m²

ERREZIL

adosatuak
3 - 4 logela
garaiera

BIGARREN ESKUKOAK

GARMENDI

98 m², 2 logela
igogailua
ganbara
BERRITUA

OLAZKO A.

115m², 4 logela
igogailua
garaiera
ganbara

ELIZ KALEA

azalera 120 m²
4 logela
gas naturala

ETXE ALAI

89 m²
3 logela

ARANA

95 m²
3 logela

SANJUANDEGI

3 logela
89 m²

PABILIOAIK - BASERRIAK - LURSAILAK - BULEGOAK - LOKAL KOMERTZIALAK

943 15 76 93

IÑIGO MITXELENA ▶ apaiza

“Aberatsa izango da emakumeak elizan lekua izatea”

▶ Testuak: Ihintza Agirretxe-Ainitze Oruesagasti

▶ Argazkiak: Ainitze Oruesagasti



Gaínean dira Aste Santuak eta Iñigo Mitxelena billabonataarrak izango du lanik. Azpeitian hura inork gutxi ezagutzen zuen hasieran, baina apaiz berria zela jakin zenetik, herri osoak izan du haren berri. 20 urte zituela historiako ikasketak baztertu eta Donostiako seminariora joan zen apaiz ikasketak egitera. Orduan sei urteko ikasketak prozesua hasi zuen. Ikasketak bukatu eta diakono (apaiz izatearen aurreko pausoa) ordenatuta etorri zen orain hiru urte. 2001eko ekainaren 29an, San Pedro egunez, ordenatu zen diakono, eta hilabete batzuk beranduago, urte bereko San Inazioetarako etorri zen apaiz ordenatuta.

Seminarioko bizitza sei urtean nolakoa izan zen? Zenbat zineten?

Normalean aste guztia bertan pasatzen genuen; igandetik ostiralera. Seminarioak barnetegi baten antza du. Dena bertan geneukan, nahiz eta arratsaldea aprobetxatzen genuen norabait joan edo buelta bat emateko. Bertan geundenon kopurua aldatzen joaten zen urtero. Batzuk ordenatu egiten ziren, beste batzuk alde egiten zuten... Hala ere, uste dut seminarioan sartu nintzen lehen urtea izan zela jende gehien egon ginen; hamalau ginen. Beti kopuru horren inguruan ibili ginen; hamabi, hamahiru, hamar. Gaur egun, berriz, zortzi daude.

Zure ingurukoei esan zenietan apaiz sartu behar zenue-la, zer erreakzio izan zuten?

Nik ez dut alde horretatik inolako arazorik izan. Gurasoei apaiz sartu behar nuela esatea, eman niezaieken albisterik onena izan zen. Lagunek ere oso ondo hartu zuten; batzuk harritu ziren baina orokorrean dena normala izan zen. Gainera, ni urte askoan nen-

bilen parrokian, eta zerbait espero zuten; agian ez horrelako pauso bat ematea, baina zerbait bai.

Azpeitia zure apaiz lanetan lehenengo parrokia al da?

Apaiz, bai. Apaizgai, praktika moduko batzuk egin nituen. Sendotza edo aisialdiko talderen bat izan nuen, baina oso lan puntualak ziren. Azpeitira etorri nintzen, dagoeneko diakono ordenatuta etorri nintzen; hilabete batzuk beranduago apaiz izendatu ninduten.

Apaiz izatea beste lan bat bezalakoa al da?

Nik ez nioke lana deituko, bizitza estilo bat baita. Ni ez naiz elizara sartu eta apaiza, eta irtendakoa kito. Elizatik irtenda ere apaiz izaten jarraitzen dut, bokazio konkretu bat da gurea. Hartu-emanean nabari da apaiza naizela eta, gainera, nabaritu behar dela iruditzen zait. Jendearekin tratatzeko eta egoteko moduan...

Zein da apaiz lan zailena edo gutxien gustatzen zaizuna?

Gehien kostatzen zaidana hiletak dira. Askotan momentu horrek duen zailtasunagatik edo. Konfesatzea ez da oso zaila, gainera, gaur egun ez da jende asko etortzen. Etortzen direnak modu tradizionalen konfesatzen dira.

Apaiz lanetan zure lehenengo herria izanik, nolakoa izan zen hasiera hura?

Ona. Hasiera guztiek izaten duten bezala, ezjakintasun hori, lehenengo eta hasierako dukeen, baina denborarekin ikasten joan naiz. Herria asko gustatu zitzaidan hasiera batetik.

Zer moduz hartu zintuzten azpeitiarrek?

Ondo. Ezagutzen ez duzun herri

batera iristean kostatu eginten da. Hasieratik nabaritu nuen jendeak ezagutzen ninduela, aldarean ikusita edo jakin bazekiela apaiza nintzela, eta nik bitartean ez nuen hainbeste jende ezagutzen. Hasieran eliz inguruko jendearekin izan dut harremana eta geroxeago ezagutu ditut herriko gazteak.

Azpeitiarrak oso erlijiosoak al gara?

Nik ezagutu ditudan beste parrokia eta herriekin alderatuta, Azpeitian jende dezente etortzen da elizara. Hori bai, leku guztietan bezala, jende heldua eta gero eta gutxiago, eta gazteak oso gutxi. Errealitatea hori da.

Gaur egungo gizartean gauzak egiteko askatasun handia dugu. Ez al zaizu iruditzen zure buruari mugak jartzen ari zarela?

Beti jartzen dizkiogu mugak gure bizitzari. Denok ezin dugu bizitzan nahi duguna egin. Nik, bai seminario garaian eta bai orain, gauza berak egiten ditut, gazte asko bezala bizi naiz. Bizimodu honek egiten digu bizitzaren eskema bat, baina bere flexibilitatea ere badu.

Eliza ez al da zaharkituta gelditu?

Eliza zaharkituta dago, talde edo instituzio handia da eta oso mantsu doa aldiari aldiko modu eta ohituretara moldatzen. Horrez gain, gure gizarteak ez du laguntzen esperientzia sakon bat egitera. Faktore ezberdinek eragiten dute horrelako egoera bat. Honekin ez dut esan nahi eliza perfektua denik. Elizak oraindik pauso ugari eta oso garrantzitsuak eman behar ditu etorkizunari begira, bestela ez du zereginik.

Azkar-azkar

Jainkoa. Egunero gurekin dagoen aita.

Zerua. Guztion topagunea.

Infernua. Jainkoaren ametsetan ez dago infernuarentzat lekurik.

Aita Santua. Aitona.

Sexua. Kantitatea baino hobe kalitatea.

Afizio bat. Nire lagunak zaintzea.

Antisorgailuak. Gai korapilatsua

Bizitza. Zorion bidea.



Modernizatuko al da inoiz eliza gizartea adina?

Nik ez dakit, teorian pauso hori posible da. Elizak instituzio handi bat bezala; 20 mendeko historia du eta ezin da hori egun batetik bestera aldatu. Nahiz eta askotan hori nahi izan, gauzak ez dira hain errazak. Nik uste azken 50 urteetan gauzak asko konplikatu direla elizan.

Eliza gure gizarteko gaietan ez da asko sartzen edo ez ditu ikusi nahi. Horrek ez al du jendea elizatik urruntzen?

Elizak oraindik gauza asko onartu behar ditu, eta onartu aurretik gauza askoz hitz egin behar du. Ez modu txar batean, modu natu-

ral eta normaltasun batekin baidzik. Hitz egiteagatik eta gauzak planteatzeagatik ez da ezer gertatzen.

Hitz egin dezagun arazo hauez. Emakumea iritsiko al da inoiz meza ematera?

Teologikoki oso zaila da frogatzea emakumeek ezin dutela mezarik eman. Aberastasuna izango litzateke pauso hori, pluralitateak aberastasuna ematen baitio guztiari. Asko 'humanizatuko' litzateke eliza, nabari baita orain arte gizonezkoek agindu dutela hemen ere.

Antisorgailuak ez onartzeak ba al du eraginik gizarteak elizarekiko duen jarreran?

Nik uste baietz. Teorian, ebangelioa salbatzailea eta askatzailea da, zoriona ematen digu eta besteengana maitasunez hurbiltzen gaitu. Gauza horietan justu kontrakoa egiten ari gara, ordea. Pertsonak heldutasunarekin har ditzakeen erabaki edo soluzioak kritikatu egiten ditugu eta ez dakit askotan ez al garen justu kontrakoa egiten ari.

Zuk izango al zenuke arazorik bikote homosexual batezkontzeko?

Alde batetik, ezingo nituzke ezkondu, elizak ez duelako uzten, baina esango nieke elkar maite badute, elkarrekiko errrespetua zaintzen badute, harremana heldutasunez badaramate eta, azkenik, inori minik ez badiote egiten, zer arazo dago? Nik ez nuke arazorik izango. Baina momentu jakin batean galdetuko nieke zertarako ezkondu behar duten, horrela ongi bizi badira. ◀

elkarriketa osoa
www.uztarria.com-en

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

PILDAIN
inmobiliaria
Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jet.es

HORMIGONES LAZKANO
HORMIGOIAK



gure beste ALKATEA

Jacques Coumet hazpandarra da euskal auzapezik "kontserbadoreena"; EHZ jaialdi ezaguna debekatu du

► Testuak: **Enekoitz Esnaola** ► Argazkia: **Le journal du Pais Basque**

Zein da Jacques Coumet? Ezezaguna ia azpeitiar denentzat, nahiz eta Azpeitia Hazparnerekin senidetuta egon 1984tik. Dena dela, anaitasun hori itxura gehiago izan da, eta, beraz, logikoa izan daiteke ia denek ez ezagutzea Coumet.

Hazpandarrek ederki dakite zein den: herriko auzapeza —alkatea— 1970 hamarkadatik. Haietako askorentzat urteok ez ziren luzeak izango, Coumetek herritarren babes handia izan duelako beti. Beste batzuentzat, aldiz, luzeak eta astunak izan dira urte horiek guztiak. "Coumet izan daiteke ez Ipar Euskal Herriko, baizik eta Euskal Herri osoko auzapezik kontserbadoreenetakoa", diote Hazparneko Ikastola-ko guraso batzuek. Iaz, apirilean, inauguratu zuten han ikastolaren eraikin berria, eta biziki haserre zeuden orduan gurasoak harekin. "Arrunt garrantzitsua da ekitaldi hau, guretzat bederen, eta gure iduriko herriarentzat ere bai, baina ezin erran hala denik Coumetentzat, une batez baizik ez delako egon ekitaldi honetan".

UMP, Frantzia-zale alderdi eskuindarreko kidea da Coumet,

eta Hazparne-ko jaun eta jabea. Ez herrikoa soilik, baita Hazparne kantonamendukoa ere (Donamartiri, Donostiri, Lekorne, Lekuine, Makea eta Meainek osatzen du bailara).

► **BOTEREA GALTZEN.** Baina boterea bukatzen ari zaiola dirudi; izan ere, martxoan Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusirako hauteskundeak izan dira, eta 1973az geroztik lehen aldia da Coumet ez dela izango Hazparneko kantonamenduko kontseilari nagusia. Beñat Intxauspe nagu-

Oharra

Uztarria herri aldizkariak hemendik aurrera Hazparneri buruzko informazioa ere aterako du; www.uztarria.com-en dagoeneko argitaratu dira zenbait albiste. Izan ere, Azpeitiak herri anaiarekin orain arte baino lotura estuagoa izan behar duela uste du Uztarriak, "eta horregatik informazio aldetik ekarpen hori".

situ da. Orain sei urte Coumetek %63 lortu zituen; orain, lehen itzulian %30. Abertzaleek %12.

Auzapezak otsail bukaeran esan zuen aurtan —uztailean— Euskal Herria Zuzenean musika jaialdi erraldoia herrian ez dela izango, debekua eman zuen —"segurtasun arrazoi funtsik ga-beak emanez", Piztu elkarteak

dioenez—, eta badirudi horrek eragina izan duela hauteskundeetan, jendea haserre baita. "Coumetek beldurra dio kulturari".

Intxauspe, UDF Frantzia-zale alderdi zentristako buru aurkeztu da, independente. "Euskaltzale suharbezala aurkeztu naiz", esan du. Bi urte pasara dira udal hauteskundeak. Ikusiko. ◀






ITURRIOTZ ITURRIRIK GABE.

Iturriotz (Iturrisa bezala ezagutua lehen) da Azpeitiko antzinako iturrietako bat, eta "iturria ez ezik, garbitoki txiki bat zegoen ibaiaren ertzean, zezen-plaza inguruan, Iturrisa deiturikoa. Konponketa lanak egin ziren 1883an. Bertako urak Marzial Uzin enpresak bereganatu nahi izan zituen eta eskaera egin zion Udalari, baina 1962an ezetza eman zioten", dio Imanol Eliasen Azpeitia historian zehar liburuak. Iturria gaur sastraka artean dago, desagertuta. Ondarea den arren. ▶ Testua: **Nerea Uranga** ▶ Argazkia: **Uztarria**

Efemerideak ▶ apirila



Urolako trenari. 'UROLAKO TRENA 1926-1986'

benetan isun ARRAROAK

Garia eta artoa, pilota... isun ugari eta gaur egun zelebreak jartzen ziren garai batean

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' (Imanol Elias-Uztarria)

APIRILAK 15 ▶

Matxinada herrian. 1766an matxinada izan zen herrian. Garia eta artoaren prezioak erabaki ziren. Arratsaldean prozesioa egin zen Loiolara, eta bertan agintariei eta parrokiko apaizei parte hartzera derrigortu zitzaion.

APIRILAK 18 ▶

Izurriteak eta eliza. 1773an biztanle batzuk izurrite batek jota hil zirela eta beste batzuk kutsaturik zeudela ikusirik, halako kasuetan egin ohi zen bezala, erretoreari errogatibak egiteko eta mezak eskaintzeko eskaera egitea erabaki zen, San Rokeren bidez, Jainkoaren laguntza iristeko.

APIRILAK 21 ▶

Isun bitxia. 1699an Urrestilako tabernako hornitzaileari 120 errealeko isuna ezarri zitzaion, bi egunetan ardorik gabe izan baitzen taberna.

APIRILAK 23 ▶

Ume jolasa. 1790ean Frontoia egokitze lanak egitea erabaki zen, eta amaitzean bando bidez



Artoa garestitzean istiluak.

debekatzea han eta San Agustingo atarian ble eran jolastea, lau errealeko isunaren azpian.

APIRILAK 25 ▶

Ogia denen ahotan. 1783an, ogia egiten zuten emakume guztiei hamasei ontzako librako ogia egin zezatela adierazi zitzaion, bakoitza lau laurdenean saltzeko, eta Arabako garia nahastu gabe.

APIRILAK 30 ▶

Adio Urolako trenari. 1986an zerbitzua bertan behera uztea erabaki zuen Eusko Gobernuak. ◀

Pertsonaia ▶

JOXE AGIRRE.

Joxe Agirre Oranda bertsolaria jaio zen 1929. urteko apirilaren 18an; hain zuzen, Oranda baserrian jaio zen Agirre eta goitzen horixe hartu zuen. Gaztetan hasi zen bertsotan eta oraindik ere jarraitzen du plazaz plaza kantuan. 75 urte egingo ditu hilaren 18an.



Datua ▶

1987

AZPEITIA-HAZPARNE.

Apirilaren 5ean, hamazazpi urte beteko dira bi herrien arteko senidetze eguna Azpeitian ospatu zela. Bi herriak 1984. urtean senidetu ziren, eta hori ospatu nahian Azpeitiak eta Lapurdiko herriak berriz ere festa eguna antolatu zuten.

Argazkia ▶



LEHEN UDAL LIBURUTEGIA.

Kristina enparantzako (gaur egungo Santiago kalea) eraikin berriaren azpian Udal Liburutegi Publikoa sortzea erabaki zen 1963. urtean. Ondoren, Enparan Dorretxera pasatu zuten; gaur egun ere bertan da. Argazkian, herritarrek hasierako liburutegi hartan.

Kontua da... ▶

Traka-traka eta ospa



Imanol Elias
Odriozola

Etengabean iristen dira emakumeen bortxaketei buruzko albisteak, baina ez da inola ere gaurko bekatua; herriko historian aurki daitezke ezaugarriak.

Salbador Zuola, Joan de San Roman eta Gregorio de Igartza aurkitzen ditugu 1586an, beraien informazioa ematen Felipe Martinez de Uranga jaunaren alaba Maria bortxatua izan ondoren. Inazio Arzalluz beste auzi bat jartzen 1678an, Joan Bautista de Erkiziaren aurka, bere alaba Serafinaren bortxaketa salatuz. Munategi baserrian neskametzan egondako Katalina de Alberdi 1694an, beste auzi bat jartzen bertako nagusi Frantzisko Etxeberriaren aurka, bortxatu zuenez. Eta urte hartan bertan, Etxearreta baserriko Bautista Errazti, bere alaba Ana bortxatu zuela esanez Asteasuko Martin de Ilarreta harginak.

Zerrenda luzea osa daiteke herriko historia zer bait

aztertuz. Hemen beste batzuk. Beraien artean Juanes de Etxeberriak jarritako auzia 1715ean, Jose Egiquirenen aurka, bere alaba Ageda bortxatua izatean. Luis Etxeberriak 1718an, Inazio de Bikuñaren aurka bere alaba Madalena bortxatzean. Manuela de Zabalak jarritakoa frantziar Juan de Sansott deiturikoaren aurka 1731ean.

1740an Klara Sagarzazu agertzen da, Antonio Larrañaga, Tomas de Arzuaga eta Inazio Altunaren aurka auzia jartzen, baina gai ezberdina erabiliz horretarako: gizonezkoak bere gelan sartu omen ziren, baimenik gabe, bere dontzeilatasuna irainduz.

Eta azkenerako utzi dugu Josefa Joakina Aranak 1807an jarritako auzia Inazio Agirreren aurka, delako traka-traka egiten zutela esanez, ezkontzeko hitza emana zutenaz. Baina garaia iristean, ospa!

Garai bateko Azpeitia ▶ Joxe Mari Alberdik kontatua

dendariak eta BEZEROAK

Jose Mari Alberdik hartua du erretiroa; aurretik, urte asko pasatu zituen aita eta osabak irekitako dendan, betiko bezeroekin

▶ Testua: **Ihintza Agirretxe**

Joxe Mari Alberdi orain urte gutxira arte bizi izan da Erdi kalean. 1925-1926 urte inguruan, bere aita eta osabak ireki zuten denda; hasieran estankoa izan omen zuten, baina geroztik arropa denda dute. Gaur egun bere semeak darama; beraz, hiru belaunaldi aritu dira bertan lanean. "Hamasei urte inguru nituela hasiko nintzen dendan lanean, baina garai hartan ez zen oso serioa. Geroago hasi nintzen serio samar han lanean".

Eta ez du beste lanik izan. "63 urte pasatu ditut bertan", dio Joxe Mari. Baina berriro dendaria izatea aukeratuko al lukeen galde-

tzean, azkar erantzuten du: "Gaur egunean dagoen bezalako jendearekin ez. Lehen ohiko bezeroak ziren guztiak, eta haiekiko harremana oso ezberdina zen. Lehen asko fio ziren dendariez; orain egoera aldatu egin da eta ia ez dago betiko bezerorik".

Baina denda batean dena ez da polita, eta gerra garaiko une

“Dendan lehen ohiko bezeroak ziren guztiak, eta haiekiko harremana ezberdina da; asko fio ziren gutaz”

JOSE MARI ALBERDI ▶ dendari ohia



Azpeitiar emakumeak, denda baten aurrean. 'AZPEITIKO EFEMERIDEAK'



latzak ere gogoratzen ditu. "Tropak herrira sartu zirenean egun batzuetako oporrak izan genituen; ez genekien zer gertatuko zen eta. Une haietan zaila zen generoa lortzea, eta guk ezin genuen trajeak egiteko tela metroa 130 pezeta baino garestiago saldu eta estraperloan 350 peze-taan erosten genuen, Bartzelonan".

Denda batean gauza zelebre asko gertatzen dira. eta baditu batzuk kontatzeko. "Behin, andre batek hiru metro tela behar zuten, 3,50 metro inguru zeuden eta esan nion gelditzen zena oparitu egiten niola. Andreak ezetz eta ezetz esaten zuen, ez zuela behar. Nik ezin ulertu. Horrela, dendan zegoen beste andre batek eraman zuen doan".

Penaz hitz egiten du garai hartako Azpeitiaz. "Niri herri txikiko izaera hura gustatzen zitzaidan. Denok ezagutzen genuen elkar eta jende arteko harremana sanoa zen. Orain, aldiz, justu justu aldamenekoa ezagutzen dugu". ◀

Hitz gezidunak ▶

		Segariak		Lapurdiko herria		Intsektu mota		Albiste emaileak		Ahal nauzue	
		* IZENA		Basati		Multzoa		Idi, hitz elkarketan			
		Garaipena									
		Basapizti mota									
Lodiak		Barea						Ukatzeko			
Antisorgailu mota		* DEITURA						Emakume izena			
						50		Ate, hitz elkarketan			
						Su bizia		Ikas eta Ari			
Perretxiko mota					Tontorrak						
Eguneroko eroslea					Oihu						
							Kaltzio oxido				
							Abantzu, kasik				
Sodioa			Barre xumea					Aurrizkia			
Eskasa			Kalearen kontso.					Musika nota			
								Bi gehi bi			
								10			
Golkoa							Mahai joko				

* Bertsolari handia

Pasarte kodetua ▶



Jose Luis Otamendi idazle az-peitiarraren pasarte bat (Lur bat zure minari, 1995) azalduko zaizu ondoko lauki guztiak bete ondoan. Joko honetan, zenbakiak hartu dute letra edo hizkien ordea. Letra bat, zeinek berea, hartzen du gehienez zenbaki bakoitzak, eta batzuetan ez dira letra guztiak azaltzen. Zenbaki batzuei dagozkien letrak eman ditugu lagungarri gisa.

U								A	Z
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
E		N						B	
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20

5	1	4		14	9	1		19	9	10	6	13
9		19	11	10	9	5	9		11	10		10
9	4	9		9	5	7	11	9	13		11	4
16	9	13		5	6	8	11	17	11	11	13	
9	4	2	9	4	4	6	9		11	10		10
9	4	9		10	1	10	8	9	4	4	11	8
6	17		11	4	9	1	10	6		5	9	14
9	4	4	9		11	10		18	9	18	9	4
4	11	4	9		19	6	5	7	1		3	1
4	9		7	11	13		17	9	13	8	9	

Soluzioak ▶

Zein da hau? ▶

HITZ GEZIDUNAK

E	K	A	X	•	A	O	K	L	O	K	•
U	A	L	•	A	R	R	A	K	S	A	K
Z	I	•	A	R	I	R	•	A	N	•	
E	R	A	K	•	A	O	R	E	Z	E	B
K	A	N	A	I	G	•	A	Z	I	Z	•
A	T	A	•	L	•	A	L	U	L	I	P
Z	E	•	A	I	A	S	A	L	•	G	•
A	Z	T	A	I	R	A	G	•			
N	A	T	I	A	S	B	A	E	X		
•	K	•	O	•	S	•	S	•			



PASARTE KODETUA

gura den kanta". Jose Luis Otamendi

"Lur hau bazina bezala ez zara aldean eroan liteke-
en armarrariarelik erauzi laharra, ez paparrera bildu

UZTARRIAREN MARTXOKO ARGAZKI LEHIAKETA

gaizki



ondo



irabazlea



Mirian Olaizola Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 50. irabazlea. Martina Isasti jantzidendako txartela irabazi du sari gisa. Argazkian, Mirian —eskubian— eta jantzidendakoa.

ERANTZUTEKO EPEA ▶

Apirilak 20 (asteartea)

NORA BIDALI ▶

Julian Elorza Hiribidea 4, behea

ZEIN DEN ADIERAZI

ZURE IZENA / TELEFONOA

IRABAZLEARI SARIA ▶

Erosketa txartela (Martinezen)

PARTE HARTZEKO

BALDINTZA ▶

Uztarran bazkide izan behar da




AIZPURU
AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA



"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea

20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



Zaindu ▶ Sukarra

Julian
Bereziartua



Sukarra, burmuineko zentro zenbaitek baldintzatzen duen fenomeno da. Inguruneak, glandula endokinoek... aipatutako zentro horien hutsegiteek alda dezakete; hala ere, gehienetan, gizakiaren organismoko infekzioa sortzen dute.

Egoera normalean, gorputzaren tenperaturak ziklo uhindua du: baxuena goizeko hirurak aldera eta altuena arratsean.

Sukarra bera bezain garrantzizkoa da honen bilakaera. Horregatik, erietxeetan, tenperaturaren grafikoa egiten zaie gaixo guztiei. Gehienetan, nahikoa izaten da egunean bi aldiz hartzea, baina batzutan gehiagotan hartzea ona izaten da.

Sarritan infekzio samurrek tenperatura altuak ematen dituzte, eta tuberkulosia bezalako prozesu larriek 37 graduz gainetik gutxi. Sukar mota batzuk nerbio-sisteman, odol-jarioetan eta garuneko tumoreetan dute sorrera.

Sexu hormonek ere zerikusia dute; hilerokoaren aurretik emakumeek izaten duten sukarra, egoera normala da. Testikulueta-ko gutxitasuna dutenek, berriz, hipotermia izateko joera dute.

Hezuriaren (gotaren) eraso batek, sukar altua eragin dezake, ariketa muskular bortitzak edo izerdi asko botatakoan sortutako hidratazio eza bezala. Senda-gaiek ere sukarra sor dezakete.

LEIRE AGIRRE ▶ eskalatzailea

Mendi bat?

Erlo.

Pareta bat?

Panoramix (8b+),
Araotzen, Oñatin.

Eskalatzaile bat?

Lymm Hill.

Azpeitiko txoko bat?

Haitz-bakar; Haitzkota bezala ere ezagutzen da, eta Arlon dago.

Euskal Herriko txoko bat?

Larraona (Urbasa).

Mendia ala hondartza, zer nahiago?

Hondartza.

Mendiko tresna bat aukeratzekotan?

Katu hankak eta magnesio poltsa.

Mendian edo horman, gora ala behera?

Gora.

Ofizio bat?

Masailari.

Afizio bat?

Landareak.



▶ Testua: **Ihintza Agirretxe** ▶ Argazkia: **Ihintza Agirretxe**

Abizena ▶ Mendizabal

Armarria.

Zilarrezkoa. Sa-blezko bi otso agertzen dira zintzilik dagoen kolore bereko eltze bati helduta. Ertz gorria du eta bederatzirezeko aspa agertzen dira.

Banaketa semantikoa.

▶ Mendi + zabal.

Esanahia.

Mendi zabal edo laua.

Abizenaren kokapena.

▶ Urrestila.

▶ Azkoitia.

▶ Bergara.

▶ Urretxu.

▶ Ezkio.

▶ Legazpi.

▶ Zaldibia.

▶ Amezketa.

Abizenaren hedapena.

▶ Errezil (1657).

▶ Urretxu (1627, 1725, 1734).

▶ Eibar (1624).

▶ Zumarraga (1778).

▶ Ordizia (1774).

▶ Arama (1775).

▶ Beizama (1787).



Esandakoa ▶

“Guk ere arriskatzeko eta hutsegiteko eskubidea daukagu, gizarteak sujetu pasibo bezala ikusteari uzteko”

XABIER MADINA ▶

enpresaria eta ezindua

“Aitak eta biok kazetaritzan egin dugun kolaborazio bakarra nire liburuarena izan da; berak zuzendu zuen”

JOSEBA IRIONDO ▶

kazetaria

Zenbat ▶

2

ABESTI.

Juan Karlos Irizarren disko berrian, Joxe Takolo zenari eta Pumorin hil ziren Beñat Arrueri-eta eskainitako kantak daude.

Urola-Kostako

hitza

ekarri karrerako giltza Uztarriara

(egunkaria zure buzoiara errazago banatzeko)

Gertuko pasadizoa ▶

'ezjakintasunean' JAKINTSU

'Joxe Takolo' liburutik hartua ▶ Argitaratzailea:
Uztarria ▶ 2001 ▶ Egilea: Enekoitz Esnaola
▶ Hilaren 3an banatuko da 'Joxe Takolo beka'



KAPITULUA ▶ Himalayarako zoro-zoro entrenatzen (89. orriadea)

"Nahiz eta tontorra ez lortu, Salcantayko esperimentziak oso indartuta utzi zuen Joxe Takolo, barruan poztasun handiarekin, Andeetara joan zelako eta sei mila metro parean ibili zelako. "Gainera —dio [Joxe Mari] Azpiazu—, Joxeri izen bat eman zion espedizio hark, jada bazuelako abal bat. Gaur egun jende bat Pirinioetatik zuzenean pasatzen da Himalayara. Orduan ez; orduan Pirinioetatik Alpeetara, Alpeetatik Andeetara, eta Andeetatik Himalayara. Joxe prozesu logikoa ari zen segitzen eta Himalayarako pausoa ematea falta zitzaion soilik".

Handik etortzean, Segues medikuarekin batera "ohatila-eramaile" Amerikara joan behar zuela esan zion arrebari —"Juani, ez iezaion inori esan, eh!"—, baina segituan jarri zuen beste helburu bat: Everestera joatea. 1974an euskal mendizale dezente munduko mendirik handienara joan ziren —Everestera—, eta Joxeren izena orduan ibili zen dantzan, baina ez zioten deitu azkenean. 1976rako euskal mendizale batzuk bilerak egiten hasiak ziren 1980an berriro Everestera joateko, eta Joxe Takolok taldean egon nahi zuen.

Takolo ordura arte bakarrik entrenatu izan zen, inolako aholkurik gabe, mendiko presta-

keta fisikoko adituen laguntzarik gabe. Salcantaytik itzuli eta itxuragabeko entrenamenduak egiten hasi zen: tailerrean lana egin hamar bat ordu, irten, motxila harriz bete, eta Izarraitza edo Erniora, batzutan mendi altuetako botekin, ohitzen joateko. "Izorratu egin nintzen, orduan", zioen. "Ez nekien-eta nola entrenatu! Ez nuen inorekin hitz egiten, eta uste nuen ibiltzea zela kontua. Orain, gogor bai, eh! Fibra hutsa nintzen, bala bat bezala ibiltzen nintzen, baina azkenerako jo egin nuen".

Joxe Mari Azpiazu esan edo erregutu zion Juan Ignacio Lorente Everesteko espedizioko buruarekin hitz egiteko, hark esango ziola nola entrenatu, "orain arteko hire entrenamenduek ez ditek-eta balio!". Takolo pixka bat baretu zen, hasi zen gehiago dosifikatzen, baina ez zuen pentsaera aldatu: "Garrantzitsua da gimnastika egitea, lasterka egitea, elikadura gehiago zaintzea, baina mendigoizalea mendian oso gogor entrenatu behar da, han aurkitzen baitira gero aurkituko dituzun oztopoak eta egoerak". Josu Bereziartua mendigoizale azpeitiarrak horretan arrazoia ematen dio, "hori baita entrenamendurik onena Himalayara joateko". Alegia, bere ezjakintasunean asko zekiela Joxek. ◀

Otamendi
Bidaso Denda
Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Larrialdiak:
943 15 16 40

ORKATZ KULTUR ELKARTEA
Erdi Kalea, 24

Lorente Alun
Lore Sortak
Koroak
Lore Apaingarriak
Etxeetarako
zerbitzua dugu
Tel. 943 81 51 87
Loiolabide, 25

Argitarapen honen edizioa laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:

kutxa
zuri esker

TORREALDAY
aholkulari kontseilariak
Iberotarren plaza, 7 behea
Tfnoa: 943 15 05 09
Faxa: 943 15 16 74
azpeitia@atctorrealday.com

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Irudiekin, Iraurgi bilararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak
egiten dira

81 53 35

Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbul.-larrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztartaria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943-30 40 30
Gara (Herriak)	943-31 69 99
Deia (berriemailea)	943-72 57 75
DV (berriemailea)	943-15 09 94
Argia	943 37 15 45

LARRIALDIAK

112

Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemaile)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943-01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
ETB	943-01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
Habea	15 72 00 (138)

EA
PSE-EE
PP

81 00 11	Antxieta Etxea	81 35 40
15 72 00	Kontseilua	943-59 12 00
15 72 00	Behatokia	902-19 43 32

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztartaria Kultur Koordi.	15 03 58

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Euskaltel	900-84 00 65
Telefónica-informazioa	1003

Farmaziak gauez ▶ apirila

5-6-2122-23

Jaen (Azkoitia).
943 85 01 60

8-9-10-11-19-20

Azpiazu (Azpeitia).
943 85 29 89

17-18-30

Aranburu (Azpeitia).
943 81 13 50

3-4-15 19

Garcia (Azpeitia).
943 81 12 74

1-15-26


Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49

2-12-27

Etxebeste (Azpeitia).
943 81 12 74

16-28

Zulaika (Azpeitia).
943 15 03 34



Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	09:00-13:00

UDALTZAINGOA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	14:00-21:00
▶ Beste astegunak:	07:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Kanpoko igerilekua:	Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

▶ Astelehena:	09:00-13:00, 15:00-21:00
▶ Beste astegunak:	15:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan:	astegunetan: 09:00-13:00

ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	17:00-20:30
▶ Larunbata:	16:00-20:30

GAZTE BULEGOA.

Urola kalea 6 zenbakian dago Gazte Bulegoa. Gazteei, behar duten informazio eskuratzen laguntzen die Maialen Aranguren arduradunak. Ordutegia: asteartetik larunbata arte 10:00etatik 13:00etara eta asteartetik ostiralera arte 16:30etatik 20:30etara. IHINTZA AGIRRETXE

Garraioa ▶

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

15 06 77

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87

TAXIAK

81 13 07

Bi egunkari bakar batean

berria

Informazioa

Informazio landu eta argigarria,
diseinu berritzaile batekin emana

berria

www.berria.info

EUSKADI LITERATURA SARIAK
Polémica araudiatik
Eusko Jaurlaritzaren araudiak...
Eusko Jaurlaritzaren araudiak...
Eusko Jaurlaritzaren araudiak...

KONTZERTU EKONOMIKOIA
Kupoko zorra 'kitatzen'
Madrilgo 32.3 milioi euroko...
Madrilgo 32.3 milioi euroko...
Madrilgo 32.3 milioi euroko...

SASKIBALDIA
ACB Liga gaur hasiko da
Telebista eskubideen bidezko...
Telebista eskubideen bidezko...
Telebista eskubideen bidezko...

ELKARRIZKETA
ARNALDO OTEGI
«Prozesu nola lagun dezakeen gogoeta egiteko unea du ETAK»
«Prozesu nola lagun dezakeen gogoeta egiteko unea du ETAK»
«Prozesu nola lagun dezakeen gogoeta egiteko unea du ETAK»

Gerrarako argudioak balio gabe utzi dituzte arma ikuskatzaileek
TXOSTENA. Iraken suntsipen handiko armarik ez dutela aurkitu erakusten du AEBek propio osatutako ikuskatzaile taldearen txostenak
OKUPAZIOA. NBEK uko egin dio Irakeko prozesu politikoan parte hartzean, koalizioak okupazioa bertan behera uzten ez duen bitartean / 33

Txillidaren 200 obra Europar ikusgai
Eusko Jaurlaritzak 200 obra txillidarekin...
Eusko Jaurlaritzak 200 obra txillidarekin...
Eusko Jaurlaritzak 200 obra txillidarekin...

t tartea

Astialdia
12 orrialde egunero
Gertuko gaiak
Elkarriketak
Erreportaiak
Kronikak
Mendia
Moda
Gastronomia
Jaiak...

berria

GAURBERRIAN
BASE SA HAR FIDAZI...
LARRAZO SA LARRAZO...
GAUR 16 ORRIALDE

ITSAS MENDI
karabena

mai de oio
www.hotak.com

...eta gainera

mantangorri

Mendia ezagutu, natura maitatu

16 orrialdeko gehigarri koloretsua

MANTANGORRI:
Larunbatetan
16 orrialdeko gehigarri koloretsua
haur eta gaztetxoentzat

IGANDEA

Zentsuratu

Ahots isildua, boz ozena

ingurumena
Zure etxeko ingurua

IGANDEA:
Asteko albisteak
patxadaz aztertzeko aukera.

egitura

Zorpetzea
famiak kate
motzean lotuta

16 orrialdeko gehigarri ekonomia

EGITURA:
Igandeetan 16 orrialdeko
ekonomia gehigarria

BERTAKO HARAGIA...



Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA
Jose Artale, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA



PATXO

EDUARDO BERASATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onenak
San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98




MATXIN

bertako okela
HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEOA 15 00 03
AZPEITIA




**Harategia
Odriozola**

Harategi
Especializatua

Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015




HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEKO URDAIKIA
FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA. 81 15 94
AZPEITIA




KALITATEZKO
HARAGIA
BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
TFONOA: 943 811671

...GURE HARATEGIETAN



EUSKO LABEL



MILA BERGARA ▶ 'Hitza'-ren banatzailea

Nik ematen omen ditinat egunero kontu politak"

▶ Testuak: Ihintza Agirretxe ▶ Argazkiak: Ihintza Agirretxe



TXIKITAKO AMETSA.

"Nire ama Melillakoa dun, eta gu txikitan tarteka hara joaten, hegazkinera sartu, bertan azafatak ikusi eta pentsatzen ninenan azafata haiek beti bidaiatzen ibiltzen zirela eta zorte ona zutela horregatik. Hortaz, handitan hegazkineko azafata izatea nahi ninenan".

Otsailaren 20tik ari da Mila Bergara Urola-Kostako Hitza egunkaria herrian banatzen, etxez etxe. Badut zer kontatua.

Zer dela-eta animatu hintze- nan lan horretan hastera?

Lanik gabe nengonan eta Hitza-n banatzaileak behar zirela jakin nuenean, besterik gabe aurkeztu nindunan.

Eta, ondo?

Gustura, bai. Tira-bira batzuk izan ditinat pegatinak direla eta ez direla, baina ondo, bestela.

Ale asko ditun, lan handia.

Hasieran erosketako karroarekin ibiltzen nindunan alde batetik bestera, baina orain motxilarekin. Izan ere, Sanjuandegin toki batzutan eskailera zeuden eta hasieran karroa non lagatzen nuen ahaztu egiten zitzaidan.

Azkar hartu al dion trukua?

Oraindik baserri batzuk-eta non dauden ez dinat ikasi, baina pixkanaka-pixkanaka ari naun. Adibidez, orain gutxi Sokin baserria Loiolan dagoela jakin dinat.

Nolakoa da hire egun normal bat lanean?

Bederatzietan hasten naun lanean, eta lehenen, Loiolara joaten naun. Ondoren, Sanjuandegira. Bukatzeko, Urrestilara. Ordubatak aldera bukatzen dinat. Arratsaldeak libre.

Jendeak egiten al din komen- tariorik 'Hitza'-ri buruz?

Oraindik batzuk ez ditun enteratu telefonoz hotsegin behar dela egunkaria jasotzeko, eta kexatu egiten ditun, gainera. Eta bazagon nire zain egoten den gizon bat; nik kontu politak ematen dizkiotela zion eta atean egoten dun.

Arazorik bai orain arte?

Buzoi batzuetan nik 'h'-ak jarri eta etxepekoren batek edo ume-
ren batek kendu egin ditin. Eta batzuek atzetik zelo edo boligrafoz jarri dinat, nik ikusteko. ◀

Udala-Uztarria akordioa (osoa, www.uztarria.com-en)

1. PARTE-HARTZEA ▶

1.1. Udaleko Euskara Batzorde buruak, Azpeitiko udal euskara teknikariak eta Uztarria Kultur Koordinadorak, EBPN oinarri hartuta, hura betetzeko eta

aberasteko asmoz, batzordea osatuko dute. Betekizunak:

▶ EBPNren urteroko kudeaketa plana adostu.

▶ Jarraipena egin eta beste ekimenak aztertu.

1.2. Uztarriak parte-

hartze zuzena izango du gizarte eragileekin arloz arlo osatuko diren batzorde guztietan.

1.3. Uztarria, merkataritza eta herri-elkarteen arloetan lanean ariko da.

2. BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA ▶

2.1. Udalak eta Uztarriak, biek batera, Azpeitiko eragileei Kontseiluaren Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko gonbita egingo diete.

3. DIPLOMA ▶

3.1. Konpromisoa hartzen dutenei diploma emango diete Udalak eta Kontseiluak.

4. LANGILEA ▶

4.1. Uztarriak izendatuko du bere langilea.



Laxaro Azkune, Julian Eizmendi eta Xabier Mendiguren, martxoaren 25ean, akordioak sinatzen.

euskara IRABAZTEN

Uztarriak dio Udalarekin lortu duen hitzarmenak, beste akordio batzuk lortzeko ere “balio” dezakeela

▶ Testuak: **Uztarria** ▶ Argazkiak: **Urola-Kostako Hitza**

Herriak eskatzen eta behar zuen egoerara iritsi dira Udala eta euskalgintza, Udalak berak eta Uztarria Kultur Koordinadorak euskaren normalizazio planerako akordioa sinatu dutelako; hain zuzen ere, martxoaren 25ean izan zen hitzarmenaren izenpetzea. Udalak eta Kontseiluak ere sinatu zuten euren arteko hitzarmena. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eta Bai Euskarari Akordioa uztarturik gelditu dira, ondorioz.

Uztarria, joan den urte bukarran, Udalar bi planen arteko uztarketa proposatzen hasi zenean, Tolosaldeko eredia ari zen jartzen eredutzat, eta Tolosako Udaleko euskara teknikari Iñaki Azaldegik artikulua esanguratsua idatzi zuen herri aldizkarian: “EBPNk eta Bai Euskarari Akordioak prozesu berean bat egitea iruditzen zait egokiena. Bide hori ari gara jorratzen Tolosaldean, Bai Euskarari Akordioaren Jarraipen Batzordea eta EBPNren Aholku Batzordea kide berberekin osatuta baitugu. Kostatuta, baina elkarren kontra aritu ordez, elkarrekin eta elkarlanean aritzea erabaki dugu. Euskaldunen arteko kontua izateko, miraria ere badirudi, ezta?”.

Azpeitian ere lortu da miraria, eta uztarketa egon da. “Bi parte en aldetik borondate ona egon baita. Udalak herriko euskalgintzarekin kontatu du, herrian euskaren normalizazio helburua duten erakundeen arteko inda-

zerbitzu BERRI BAT

Uztarriak Hitzeko Euskara Zerbitzu enpresa sortu du, herrian eta ingurukoetan dagoen beharrari erantzun ahal izateko

► Testua: **Josu Uranga**

Uztarria Kultur Koordinadorak Hitzeko euskara zerbitzu enpresa sortu du, herrian eta ingurukoetan dagoen beharrari erantzuteko. Azpeitian, adibidez,

gehiengo euskalduna bada ere (%87), herritarrek ez dira euskaraz bizi, oraindik hainbat gauza gaztelaniaz egiten direlako edo daudelako.

hitzeko
euskara zerbitzuak

Zerbitzu hauek emango ditu:

► **Itzulpenak.** Hainbat hizkuntzetatik euskarara itzulpenak egingo ditu.

► **Zuzenketak.** Euskaraz dau den testuen zuzenketak.

► **Bai Euskarari Ziurtagiria.** Dutenen beharrak beteko ditu.

► **Komunikazio zerbitzua.** Menuko karten diseinua euskarara, katalogoak, diptikoak...

► **Mikroplanak.** Euskararen normalizazio planen diseinua.

Hitzekok ezagutze kanpainari ekin dio (665 72 39 79). ◀

Jarreraz

Uztarria, urriaren 23an, EBPnko Aholku Batzordearen bilera egin zenean, Uztarriak esan zuen "euskalgintzak bere indar guztiak" jarri nahi zituela "adostutako plan estrategiko batean". Orain lortu du Udalarekin akordioa, eta jarrera berarekin segitzen du Uztarriak.

"Era berean, Azpeitian euskaraz bizitzeko motibazio lana egingo dugu gure bitartekoekin. Herritarrei esango diegu normalizazioarena borondateko prozesua dela, inor behartu gabekoa. Baina herritarren parte-hartzea bultzatuko dugu, bakoitzak bere esparruan aurrerapausoak eman ditzan".

Asko dago jokoan, eta Uztarria "kritikoa" ere izango da "euskararekiko axolagabekeria duten talde-elkarte-komertzio-erakundeekiko, edo kontrako jarrera dutenekiko... Gure hizkuntza errespetatzen ez dutenekiko, azken batean".

Baita beste zentzu batean ere: "Udaletik, euskalgintzatik edota gizarte eragileetatik gauzak hobeto egin daitezkeela ikusten badugu, kritika edo autokritika egingo dugu. Kritika eraikitzaileak izango dira".

Uztarria biltzea ezinbesteko delako helburu hau lortu dadin", dio Uztarriaren Euskara Taldeak. "Azken urteetako desadostasunak alde batera utzi eta euskararen aldeko ekimen honek norabide bakarra izatea oso garrantzitsua da. Hitzarmena garrantzitsua da, logikoa, efektiboa eta naturala".

Dena dela, "bidea hasibesterik ez" dute egin Udalak eta Uztarriak, "eta herriko enpresek, elkarrekin, komertzioekin... planean protagonismo handia eduki behar dute, baita hartuko dituzten erabakiak betetzean konpromiso irmoa eduki ere". Kontseiluak orain arte eman duen "babes garrantzitsuarekin" segitu beharra dagoela dio Kultur Koordinadurak.

► **BESTE KONTUAK.** Hitzarmena sinatu da, eta orain paperean dagoena betetzen hasi behar. "Hor ere denok geure borondate onenarekin jardun beharko dugu", uste du Uztarriak.

Eta aurrera begiratu nahi du, herri ikuspegi zabalarekin. "Azpeitiko beste arloetarako balio dezake Udal-Uztarria akordioak, beti ere herriaren mesederako. Euskararen alorrean, esaterako, zintzilik geratu da Urola-Kostako Hitzaren kontua. Ea hor ere adostasuna lortzen dugun". ◀

Abizen asko euskaldundu dira.

Uztarria-Euskarak (Baite Euskara Elkartearen zenak lehen) abizenak eta euskal grafiara aldatzeko jarritako zerbitzua fruituak ematen ari da, jende asko hurbildu delako. Aldatu nahi duenak egin beharrekoa: Uztarriara etorri eta nortasun agiriaren fotokopia ekarri. Uztarria ikastetxeekin elkarlanean ari da.

Aldatutako abizenak.

- Agirre (Aguirre, lehen).
- Agirrezabal (Aguirrezabal).
- Agirrezabalaga (Aguirrezabalaga).
- Alkorta (Alcorta).
- Arakistain (Araquistain).
- Aranbarri (Arambarri).
- Aranburu (Aramburu).
- Arotzena (Arocena).
- Arregi (Arregui).
- Azkoitia (Azcoitia).
- Azkue (Azcue).
- Bas(z)tarrika (Bastarrica).
- Bengoetxea (Bengoechea).
- Bereziartua (Bereciartua).
- Bikendi (Viquendi).
- Egiguren (Eguiguren).
- Eskurtza (Esurza).
- Etxaniz (Echaniz).
- Etxarri (Echarri).
- Etxeberria (Echeverria).

► Etxezarreta (Echezarreta).

► Ezeiza (Eceiza).

► Gorrotxategi

(Gorrochategui).

► Gurrutxaga (Gurruchaga).

► Irulegi (Irulegui).

► Izaguirre (Izaguirre).

► Kaperotxipi (Caperochipi).

► Karrera (Carrera).

► Kerexeta (Querejeta).

► Kortadi (Cortadi).

► Labaka (Labaca).

► Lazkano (Lazcano).

► Lertxundi (Lerchundi).

► Salegi (Salegui).

► Txapartegi (Chapartegui).

► Uzin (Ucin).

Aldatutako izenak.

► Amaia (Amaya).

► Monika (Monica).

► Eba (Eva).

► Jon Iñaki (Juan Ignacio).

Lesakara joateko deia EHEk.

Apirilaren 4an, hizkuntza eskubideen aldeko eguna antolatu du EHEk, Lesakan. "Euskaldunoi hizkuntza eskubideak sistematikoki urratzen dizkigute eta ezinbestekoa da eragin sozial tinkoagoa". Azpeitiko EHEk joateko dei egin du. 08:40an abiatuko da autobusa, Etxe-Zuri aurretik, eta Orkatzen eman behar da izena.

Euskararen gorabeherak ▶



GORA ▶ Seinalizazioa.

Landetan, Lau-bide jatetxe inguruan, bertako bizilagun batek bere garaje pareko seinalizazioa euskara hutsean ipini du. Ez dio debekurik ipini euskarari.

BEHERA ▶ Buzoiko publizitatea.

Zerbait egin beharko da etxera gaztelania hutsean iristen den publizitatearekin. Batik bat merkatal gune handienak izaten dira horrelakoak, behekoak bezala.



Behatokia ▶ (euskararen eskubideen urraketak salatu ahal izateko telefono zenbaki berezia)

† 902 19 43 32

Eskubideez ▶

“ Euskal herritarrok eskubidea dugu euskara ofizial, hizkuntza nazional eta lehentasunezko izendatua izan dadin Euskal Herriko lurralde osoan ”

Euskal Herrian Euskaraz 'Bideak' eskuliburutik hartua; Uztarran dago edonoren eskura

Albisteak ▶

Kontseiluak emandako aholkuak

Kontseiluak, euskararen aldeko 29 aholku eman ditu. Batzuk:

- ▶ Euskara ikasiko dut.
- ▶ Euskara erabiliko dut.
- ▶ Seme-alabak D ereduan eskolatuko ditut.
- ▶ Kide naizen ekarteetan euskara egotea bermatuko dut.
- ▶ Aukeran ikasketak euskaraz egingo ditut.
- ▶ Euskarazko hedabideak kontsumituko ditut.
- ▶ Euskarazko zerbitzua ematen duten, normalizazioan abiatu diren edo Bai Euskarari Ziurtagiria duten enpresak lehenetsiko ditut.
- ▶ Fakturak euskaraz bidaltzea eskatuko dut.
- ▶ Fakturak erdara hutsez jasoz gero ez ditut ordainduko.
- ▶ Euskaraz ez dauden agiriak ez ditut sinatuko.
- ▶ Justizia administrazioan ez dut itzultzailearik onartuko.



www.lasao.com

Lasao Industrialdea Azpeitia

Tel. 943 15 11 82

informacion@lasao.com

2004 udaberria udara



Santi. Lazkano Kirolak



Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50



Babesa
gazte moda

**DESBERDINDU ZAITEZ!!!
BAITA UDABERRIAN ETA UDAN ERI**

Xanjuandei auzuen gatzak
Urbitan
Tel: 943 15 15